

Herririk Herri | 21

Orhipean: euskal kulturaren topagune asteburu honetan Landako Gunean

Ekonomia | 10 |

"Otsaila XXIeko langileak izan ziren plenoko istiluen sortzaileak", dio EAJK



Berbaz | 9 |

Xabier Aierdi: "Gizartearen zutabe batzuk desegin egin dira"

Greba mugabakoan daude Ductilor-Fytasako beharginak

Elorrioko Ductilor-Fytasako zuzendaritzak epaitegi merkantilean 21 behargin kaleratzea eskatu duela diote sindikatuek

Beharginak astelehenetik daude greba mugabakoan, "etorkizun laboral eta lan baldintza duinen defentsan"

10

Karrika 'Oinez dabilen jende eskasa' aurkezten

KULTURA • Martxoaren 20an, 22:00etatik aurrera, estreinatuko dute Karrikako antzezle gazteek azken urtebetean prestatzen jardun duten *Oinez dabilen jende eskasa* antzezlanak, San Agustinen. Pertsonen kontrako minen erabilerari buruz dihardute obran.

13



A. Domínguez

Lehenengo Zilar Astea, Joseba Sarrionandiaren obra ardatz

Erreportajea • Zilar Astearen lehenengo edizioa Joseba Sarrionandia ardatz hartuta antolatuko dute, datorren astean, Durangon. Ekimen honetan hainbat talde, kultur-

gune, eragile, ikastetxe eta artistak parte hartuko du. Antzezlanak, ikuskizunak, errezi-taldiak eta Literatura Eskolaren saioak bildu dituzte aste tematiko honetan.

16-17

Abadiño

Erasotu duten emakumearen aldeko elkarretaratzea

4

Durango

Maristak Panamako ikastetxe batez elkarlanean

3

Mallabia

Traktore eta autoen martxa, pasabidea aldarrikatuz

7

Zaldibar

Durangaldeko 55. Txistulari Eguna ospatuko dute bihar

7

Dima Golf

PITCH & PUTT

golfa zure neurria!

Martxoaren 27an PITCH & PUTT zaleentzako torneo:

- 20tik beherako handy capa
- 20-34 artekoentzako
- 34tik gorakoentzako

Izena emateko: Martxoaren 1etik 26ra arte (16:00etan) Dima Golf-en edo interneten

Kurtsoak:

- Pitch & putt klase irekia: doan
- Hastapen kurtsoa "ezagutu pitch & putt": 37 euro
- Hiru hilabeteko kurtsoa: 120 euro
- Haurrentzako kurtsoak (12 urte arte): 90 euro
- Gazteentzako kurtsoak (13-17 urte): 50 euro
- Banakako klaseak, teknifikazioa eta hobekuntza

zator eta gustura informatuko zaitugu!

DIMA GOLF CENTER Km.38 Dima - Otxandio Errepidea (Dima gana)

Tif. 94 404 61 47 www.dimagolf.com

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Orhipean ekimenak euskal kultura plazaratuko du asteburuan

Landako Erakustazokan euskal kultura ikuspegi askotatik ezagutzeko eskainiko dute, bihar eta etzi

Nabarralde eta Txoria txori egitasmoak elkarlanean *Orhipean, Euskararen Herria plazaz plaza* parke tematikoa antolatu dute, larunbat eta eta iganderako, Landako Erakustazokan. Hitzaldiak, errezitaldiak, film emanaldiak, musika, literatura... mota guztietako ekitaldiak antolatu dituzte: "Antzeko ekimen asko egin izan da, baina ez gure herrian, nortasunean, historian edo gudan zentratuta; eremu hori landu nahi dugu modu ludikoan" azpimarratu du Angel Rekalde Nabarraldeko kideak.

Literatura, musika, film emanaldiak, hitzaldiak... egitarau zabala antolatu dute larunbaterako zein iganderako

Iñigo Gallartzagoitia Txoria Txori egitasmoko kideak azaldu duenez, "azoka bat antolatzea ez da aitzindaria, baina edukia beste era batera aurkezten dugu, eta hor dago berritasuna". Landako Erakustazokako espazioa "komu-

nikaziorako gune bilakatu nahi dugu". Zer komunikatzeko, baina? "Orhi mendi mitikoaren azpian dagoen herriaren kultura, hizkuntza eta nortasun kolektiboa".

"Antzeko ekimenak badaude, baina ez gure herrian, kulturaren, gudan zentratuta"

Egitarauari erreparatuta, arlo eta ildo askotako ekitaldiak aurkitu daitezke. Larunbat goizean, esaterako, Asturias, Galizia, Nafarroa eta Kataluniako artisautza postuak egongo dira. Eguerdian *Orhiko xoria, Orhin laketa* izeneko antzezlan eskainiko dute eta, ondoren, Bentazarreko mutiko alaiak taldeak euskal kantu tradizionalak abestuko ditu (egitarau osoa agendan).

Domekan, besteak beste, *1512 Nafarroaren konkista* hitzaldia emango du Angel Rekaldek: "Urte bi barru 500 urte beteko dira Nafarroa konkistatu zutenetik. Instituzioek muntaia handia prestatuko dute Nafarroako Erresuma Gaztelakoari gehitu zitzaiona esateko;



Angel Rekalde eta Iñigo Gallartzagoitia Nabarralde eta Txoria Txori egitasmoko kideak.

hori eufemisno hutsa da, benetako inbasioa estaltzeko".

Ekitaldi guztiak azokan ipiniko duten pantaila erraldoi baten bidez ere jarraitu ahalko dira.

Jolas parkea

Antolatzaileen esanetan, "askok ez dute gure herriko altxor historikoa eta kulturala ezagutzen". Hori guztia plazaratzea dute hel-

Gaztetxoendako jolas parkea atondu dute: F1 simuladorea, jumping ikuskizuna eta Wii gunea daude, besteak beste

Baliteke datorren udalbatzarrean euskararen ordenantza eztabaidatzea, eta Talde Mistoak horren gaineko bere jarrera jakinarazi du. EAJrentzat ordenantza "bere burua zuzitzeko tresna bat bakarrik da, eta ez dauka ordenantzan jasotzen dena betetzeko asmorik".

Ordenantza aurrera irteten bada, euskararen ordenantzaren jarraipena egiteko konpromisoa hatu dute, baina gogoratuz Gobernu Taldearena dela "hori betearazteko ardura": "Badakigu ez dela horrela izango; euskarari bigarren mailako tratamendua ematen diote". Adibide legez, euskara plana erabili dute: "2008ko abenduan, behin betiko onartu zen, eta oraindik ez da martxan ipini. Durango euskalduntzeko euskarak lehen-tasunezko tartea behar du". Horrez gainera, Udaleko hainbat esparru "lantzeke" daudela diote.

Azkenik, hilaren 23an, 19:00etan, Euskal Herrian Euskarazek Durangoko Txiki Otaegitik abiatuko duen manifestazioan parte hartzea deitu dute. ■ J.D.

buru, baina "modu ludikoan, kulturaren jaia izan dadila nahi dugulako", azpimarratu dute. Horregatik, gaztetxoei begira, Pottoka gunea antolatu dute. Landako Erakustazokako txoko batean ludoteka erraldoia atonduko dute; jumping ikuskizuna, F1 simuladorea, Wii gunea eta tren turistikoa ere egongo dira, besteak beste. Jolas parkea gaur ireki dute. ■ J.D.

"Euskarari bigarren mailako tratamendua ematen diote"

Euskararen ordenantza onartzean dela, bere jarrera azaldu du Talde Mistoak



Ezker abertzaleko zinegotzi ohiak ere izan ziren prentsaurrekoan.

Xabier Madariaga Haitiri buruz, hilaren 25ean

Bateginez Gobernu Kanpoko Erakundeak Haitiren inguruko mahaingurua antolatu du, martxoaren 25erako, 19:00etan, Landako Elkartegian. Hantxe egongo dira Haitiren gaineko xehetasunak emanez Xabier Madariaga kazetaria eta honako erakundetako eta elkarteetako kideak: Munduko Medikuek, Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Bakerako Lankidetzaren Batzarrea eta Arregialde elkarteak. Bateginez jakinarazi duenez haurzaintza zerbitzua eskainiko du.

Bateginez gogoratu duenez, joan zen urtarrileko lurrikarran "220.000 lagun baino gehiago hil ziren Haitin". Orain, "hedabideak beste gai batzuetan zentratzen hasi diren honetan, oraintxe dago kolokan haitiarraren etorkizuna". ■ J.D.



Atzo bueltatu ziren Panamara irakasle biak.

Maristak ikastetxeak Lanbide Heziketako ikasketak ematen hasiko da laster Panaman

Panamako irakasle bi Durangon izan dira, hamar egunez, formazioa jasotzen

Panamako heziketa profesionaleko ikasketak martxan ipintzeko proposatu zion, orain hiru urte, Carmelo Gorrotxategik—23 urtean Panaman bizitako jesuitak— Maristak ikastetxeari. Ideia interesgarria iruditu zitzaion eta, beste bilbotar batez hiru hiru osatuz, elkarlanean ibili dira harrezkero. Panamako Chorrillo distrituko Bonifacio Pereira zentroa berriztatuta eta martxan dago dagoeneko, eta erai-kin hartako solairu bat baliatuko dute Maristek euren proiektua abiarazteko: iraupen luzeko lanbide heziketako ikasketak (2.000 ordukoak), elektrizitatea espezialitatean. Okerrik ezean, apirilean—beranduen maiatzean— hasiko dituzte klaseak, 50 bat ikaslegaz.

Horretarako, zentroko irakasle izango diren irakasle bi Durangon izan dira hamar egunez. Carlos

Emilio Garrido eta Ricardo Barreda atzo itzuli ziren Panamara, "oso aberatsa" suertatu zaien egonaldien ondoren.

Hemen emandako egunak "oso baliagarriak" gertatuko zaizkiela diote irakasle biek

Chorrillo distrituan gauzatuko dute proiektua; pobrezia handia dago eta gazteei geroari aurre egiteko aukera eman gura diete

Chorrilloko gazteek "bizimodu gaitza eta aldrebesa" daramatela dio Barredak: "Pobrezia dago, eta gazteak bandetan batzen dira". Horregatik erabaki zuten proiektua

han aurrera eramatea: "Etor-kizunari bermeagaz aurre egiteko heziketa eskaini gura diegu".

Chorrillotik gertu dagoen Panamako kanala handitu egin gura dute. Lan horietarako "eskulen kualifikatua beharko dute, eta hor lan egiteko zein beste proiektu batzuetarako prestatu gura dituzte gazteak", dio Garridok.

Irakasle biek hamar egun eman dituzte Durangon: "Maristek zein beste toki batzuetako ekipoak eta teknologia ikusi ditugu. Ikusitako ekipo batzuk badiugu Panaman, eta horiei arreta berezia ipini diegu. Asko ikasi dugu eta baliagarri gertatu zaigu".

Turismoa egiteko ere aterate dute denbora; esaterako, Gernikako arbola bisitatu dute. Bitxikeria bat: onartu dutenez, bizitzan lehenengo bider hementxe ukitu ahal izan dute elurra. ■ J.D.

Arraza bazterketaren inguruko hainbat ekitaldi antolatu dute

Arraza Bazterketaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, hainbat ekitaldi antolatu du Udalak. Boliviako errealitatea ezagutzera emateko helburua dute ekitaldi batzuek. Esaterako, atzo *Boliviako izpiak eta hizkiak* izeneko proiektio hitzaldia eman zuten Amets Arzallusek eta Txomin Txuekak. Izen bereko erakusketa ere ireki dute liburutegian, eta bihar arte zabalik egongo da; gaur 21:00ak arte dago zabalik eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara.

Horrez gainera, Fundeso elkarteak *Ez da artisautza, kultura baizik* erakusketa antolatu du, domekara arte, Ezkurdi udal artoan (12:00-14:00 eta 18:00-20:00)

Domekan, Boliviari buruzko kultur arteko jokoak egingo dituzte Udal Ludotekan



Bihar arte dago zabalik 'Boliviako izpiak eta hizkiak' erakusketa.

Domekan, Boliviari buruzko kultur arteko jokoak egingo dituzte Udal Ludotekan. Azkenik, bihar, 12:00etan, Udal Liburutegiak bisita gidatua antolatuko du etorkinei liburutegiak eskaintzen dizkien baliabideak jakinarazteko.

Bestalde, eskolako gazteen artean sentsibilizazio programa bi gauzatuko ditu Udalak: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei eta Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko ikasleei zuzendutakoak. ■ J.D.

SIURRETA

Totorikaguena da EAJren 2011rako alkategaia

Azken hiru urteotako Iñaki Totorikaguenaren kudeaketa goraiatu du Uri Buru Batzarrak

Legegintzaldi honetan alkate den Iñaki Totorikaguena da 2011ko udal hauteskundeetara EAJk aurkeztuko duen zerrendan alkategaia, jeltzaleek jakinarazi dutenez. Alkate karguan daramatzan hiru urteetan Totorikaguenak "adierazitako konpromisoa, zintzotasuna eta udal kudeaketa ona" azpimarratu ditu, kaleratutako oharrean, Uri Buru Batzarrak.

Aho batez proposatu du Uri Buru Batzarrak egungo alkatea, eta aurrez 8 urtez zinegotzi izandako Totorikaguena 2011ko hauteskundeetan alderdiaren zerrendaburu izateko. Alkategai propo-

samenak herriko EAJren afiliazioaren gehiengoaren aldeko jarrera izan duela azpimarratu du EAJk oharrean. ■ I.E.



A. Urreta
podología

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

DIMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podinara Urreta Jainaga
PODOLOGOIA 188. Eizkargokidea

Durangaldeko Baserritarren Elkarteak

DiBA

KOOPERATIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

ABADIÑO

Kontzentrazioa emakume batek jasandako erasoagatik

Hainbat lagun batu zen Traña-Matienan deitutako salaketa ekitaldian

A Abadiñoako Gobernu Taldeak, herriko emakume taldeekin batera, kontzentrazioa antolatu zuen astelehen arratsaldean. Abadiñoako alkate Jose Luis Navarrok udal bandoan herritarrek mobilizatzea deitu zituen, "emakume izate hutsagatik emakumeekiko zuzentzen den indarkeriari salaketa eta gaitzespena adierazteko". Udalak eta emakume taldeek deitutako kon-

Abadiñoako Udalak eta emakume elkarteek antolatu zuten Matienako elkarretaratzea

zentrazioa arratsaldeko 18:00etatik 18:15era egin zuten, Traña-Matienan, ONCEko kioskoaren parean. Hainbat herritar batu zen protestara. Maite Blanco Abadiño-ko berdintasun teknikariaren berbatan, "genero indarkeria kasu baten aurrean Abadiñoako herritarrek mobilizatzen diren lehenengo aldia izan da". Blancok azaldu duenez, Udalak eta emakume elkarteek deitutako kontzentra-



Traña-Matienan deitu zuten, astelehenenean, elkarretaratzea.

Herriko presoak bidalitako gutuna irakurriz eta bertsoak entzunez hasi zuten, joan zen barikuan, "euskal preso politikoen daramaten borrokaldiagaz bat eginez", baraualdia 14 herritarrek.

Domekara arte, hainbat jarduera burutu zituzten baraualdien parte-hartzaileek, besteak beste, euskal sindikatu eta ordezkariekin batu ziren zapatuan, eta preso ohiekin mahai-ingurua izan zuten domeka arratsaldean.

Sindikatu eta ordezkariekin eta preso ohiekin elkartu ziren baraualdia burutu zutenak

Domeka eguerdian, *Dagozkien eskubideen jabe, euskal presoak etxera* lemapean elkarretaratzea burutu zuten Txanporta plazan, eta salda beroa edanez amaitu zuten hiru eguneko baraualdia.

Elkartasuna euskal preso politikoen kolektiboagaz

Presoen eskubideak aldarrikatzeko baraualdia egin zuten 14 abadiñarrek joan zen asteburuan



Baraugileak, Txanporta kultur etxean.

zioaren aurretik, herritar talde batek zapatuan elkarretaratzea deitu zuen. "Pozgarria da genero indarkeria kasuen aurrean jendea mobilizatzen dela ikustea. Herritarrek geroago eta sentsibilizatuagoak daude", gaineratu du berdintasun teknikariak.

Aurrekariak

Joan zen bariku arratsaldean jazo zen gertakaria. Traña-Matienako emakume batek eraso pairatu zuen, ustez, bere gizonarengandik, Ertzaintzak adierazi duenez. Barikuan, 16:40an, Gurutze Gorriak Ertzaintzari jakin eragin zion emakume baten deia jaso zuela Abadiñoako Trañabarren kaletik, asistentzia medikoa eskatuz. Barne Sailak jakitera eman duenez, gizonak eraso egin zuela azaldu zuen emakumeak, eta berehala Galdakaoko erietxera eraman zuten.

Abadiñoako emakumea Galdakaoko erietxera eraman zuten barikuan, ustez, senarrak erasotu eta gero

kume baten deia jaso zuela Abadiñoako Trañabarren kaletik, asistentzia medikoa eskatuz. Barne Sailak jakitera eman duenez, gizonak eraso egin zuela azaldu zuen emakumeak, eta berehala Galdakaoko erietxera eraman zuten.

Bilaketa

Ertzaintzak dioenez, emazteagaz izandako eztabaidan, G.R. 70 urteko gizonak hainbat objektu bota zizkion andreari. Gizonak alde egin zuen, eta Ertzaintza bere bila dabil oraindik ere. Herrizaingo Sailak azaldu duenez, gizon hau diabetikoa da, eta "Diogenesen sindromea" ere badu. Gaixotasun honek, zakarretan gauzak bilatzera eta etxean pilatzera bultzatzen du. Herritarrei laguntza eskatu die Ertzaintzak, eta daturen bat izanez gero Durangoko Ertzain-etxera jotzeko. ■J.G.

ATXONDO

Ekainean hasiko dira etxebizitza sozialetako lanak

Arrazolan etxebizitza sozialak atontzeko lanak ekainean hasiko direla adostu dute lanon pleguetan. Aste honetako udalbatzarrean onartu dituzte pleguak, Gobernu Taldearen aldeko botoekin. Jeltzaleak kontra agertu dira, orain arte legez, Arrazolako udal-etxea zenaren lekuan hotela egitea gurago dutelako.

Pleguak onartuta, laster hila-beteko epea zabalduko da apartamentuetako lanetarako eskaintzak aurkezteko. Udalak aurre-

Lau hilabete izango dituzte Arrazolako etxebizitza sozialen lanak burutzeko

Anjel Alejoren ordezkari Jose Luis Olaetxeak zinegotzi postua hartu zuen eguazteneko udalbatzarrean

kusitakoa betetzen bada, ekainean hasiko lirateke apartamentuon lanak, eta lau hilabete iraungo lukete. Uda aurretik etxebizitza sozialak zelan banatuko dituzten adosteko ordenantza egin beharko du Udalak.

Zinegotzi berria

Eguazteneko udalbatzarrean, bestalde, EAJko zinegotzi berria izendatu zuten, aho batez. Arinago jakinarazitako moduan, Jose Luis Olaetxeak hartu du Anjel Alejok abenduan utzi zuen zinegotzi postua. ■A.U.

OTXANDIO

Txoko baten moduan jardungo du Pasealekuak

Juntakideek ez dute tabernan lan egin beharrik izango; kontuak hile amaieran aterako dituzte

Orain arte, juntakide zirenek Pasealeku jubilatuen elkarteko tabernan ere lan egin behar izaten zuten. Horregatik, askok ez zuten euren burua juntakide izateko aurkezten. Otsailaren 28an ez ohiko batzarra deitu eta aho batez onartu zuten juntakideak tabernako obligazioetatik libratzea; 189 bazkideetatik 75 bat joan ziren. Apiriletik aurrera txoko edo elkarte gastronomiko baten erdia erabiliko dute ohiko funtzionamendurako.

Bestalde, hilaren 28an, 11:00etan, urteko batzar orokorra egingo dute Kultur Etxean, besteak beste, lehendakari berria aukeratzeko. Batzarrean inork bere bururik aurkezten ez badu, oraingo lehendakari Pili Azkorbeitiak bere burua aurkeztuko duela aurreratu du: "Funtzionatzeko eredia aldatuta, martxa hartu arte, beste urtebetez jarraitzeko prest nago. Hala ere, beste norbaitek bere burua aurkeztuko badu nik pozik utziko diot". ■J.D.

gremioen koordinazioa
urutiaga
Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigo
erakusketa, salmenta eta ipintzea
Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

katerin ardoak
iñaki uribe
saltzan
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltzan.com

Hemen agertu gura badozu
deitu!
94 621 79 02



Ezagutu Dacia gama Gaurसान...

Dacia Sandero

5.250€-tik



Daciaren kalitateaz fidatu zaitez

3 urteko
bermea

edo **100.000 km***

MAPFREekin
arriku
orotarako aseguru
oparitzen dizugu**

Dacia Logan Break

8.665€-tik



Dacia Logan Van

9.300€-tik



*Lehenengo bi urteetan bermea berriz kilometro mugarik gabe. Bigarren urteak aurrera, baldintza hauetatik bat betetzen denean bermea amaibuko da (3 urte edo 100.000km)

**10/03/31a arte baliozko eskaintza partikular eta autonomoentzat, Espainiako RCI Banque SA-rekin finantzatutako Dacia gamako ibilgailu bat eskuratzeko (finantzatu beharreko gutxiengoa 4000€). Lehenengo urtean MAPFRE aseguru arriku orotarako aseguru dohainik, 30 urteko garaiko bezeroentzat 300€-ko frankiziarekin eta 30 urteko edo gutxiagoko bezeroentzat 600€-ko frankiziarekin.

Prezio guztiak BEZ-i, matriculazio eta garajio zerga eta 2000€ plana barne hartuta daude, estatuko eta autonomo erakunde bakoitzaren arauetara erantsita. Dacia Logan Break izan ezik, 2000€ plana ez duena. Ibilgailu hauek erakunde bakoitzeko salmerita prezioaren gainean gobernuak eta autonomo erakundeek emandako dirulaguntzak azaroaren 22ko 858/2009 EDan azarritako ukan beharren betetzearen arabera izango dira. Baliozko eskaintza partikular eta autonomoentzat 10/03/31a arte.

MAÑARIA

“Ekonomiaren suspertzea datorrenean” industriagunea handitu ahal izateko asmoa

Herri sarrerako industriagunea zabaltzeko tramiteak egiten hasi da Udala

Durangotik gatzela, Izurtza-ko udalerraren eta Mañariaren arteko mugan errepidearen aldamenetako Hormetxe eta Markue inguruko lurretan industriagunea zabaltzeko eta enpresa berriak ezarri ahal izateko tramiteak hasi ditu Udalak.

Herriko sarreran eraikiko duten biribilgunetik egitea industriagunerako sarbide eta irteerak aurreikusi dute

Industriagunea zabaltzeko, bertara sarrera-irteera bide egokiak egotea da Bizkaiko Aldundiak ipini izan duen baldintza, Udalak azaldu duenez. Errepidetik industriagunerako sarbideari konponbidea bilatzen jardun dute orain arte Udalean, eta herri-

ko sarreran eraikiko duten biribilgunea ikusten du Gobernuak industriagunerako sarbidearen arazoa konpontzeko aukera moduan. “Industriagunea izango den eremuan partzelazioa egiteko tramiteak aurreratzeko” helburuz, industria sektorearen plan partzialaren zuzenketa onartu zuen martxoko udalbatzarrean. Hilabete barru eraikitzen hasiko diren biribilgunek beteko du Bizkaiko Aldundiak ezinbestekotzat jotzen zuen sarbide egokien baldintza, Gobernuak dioenez.

Tramiteak egiten hasi

Aldundiagaz eta lurren jabeekin tramiteak martxan ipini dituela azaldu du Gobernuak, “ekonomiaren suspertzea datorrenerako industriagunea egiteko lanak hasi ahal izateko”. Hormaetxe eta Markue inguruko lurrek industria sektorearen plan partzialaren lehena-gotik erabilera industrialerako izendapena dutela azpimarratu dute, dena dela, Udalean.

Industriagunerako sarrera-irteerak ezinbesteko baldintza jo eta industriagunea zabaltzeko baimenik ez duela eman Aldundiak orain arte dio Udalak, eta biribilgunek berriagaz “eragozpen hori konpondua” legokeela. ■ I.E.

Industriagunea izango den eremuaren partzelazioa egiteko tramiteak aurreratzeko joatea dute helburu

Biribilgunea eraikitzeke lanak hilabete barru hasiko dituztela aurreikusi du Udala Gobernuak

Jendaurrean berba zelan egin ikasteko


Martxoaren 30era arteko epea zehaztu dute jendaurrean berba egiteko baliabideak eskaintzeko helburua duen apirilko hiru egunetan eta maiatzeko bitan eskainiko duten ikastaroan izena emateko. Zuzenbidean lizenziatua eta ahozko komunikabideetan aditua den Manu Marañonek gidatuko du ikastaroa.

Apirilaren 12an, 19an eta 26an, eta maiatzaren 3an eta 10ean izango dira doako saioak; 17:00etatik aurrera beti ere, ikasleek zehaztuko dute ikastaroaren hitzordu bakoitza.

Ahozko komunikabideetan aditua den Manu Marañon izango da apiril eta maiatzeko saioen gidaria

Jendaurreko agerraldiak prestatzen eta urduritasuna eta gorputzaren lengoia kontrolatzen ikasteko aukera

Ikastaroaren helburuetako bat, parte-hartzaileak jendaurrean berba egiteko norbere buruarengan segurtasuna izateak eta ideiak ordenatzeak daukan garrantzia jabetzea da. Bestetik, agerraldiak ondo prestatu eta urduritasuna kontrolatzeko trikimailuak erakutsiko dituzte saioetan. Bilerak zein berbaldiak aurrez prestatzeak duen garrantzia ohartaraziko dituzte ikastaroaren parte-hartzaileak. ■ I.E.



Industriagunearen plan partzialaren zuzenketa onartu zuten martxoko udalbatzarrean.

BERRIZ

Aurrekontu “ulerterrazagoak” eskatu ditu ezker abertzaleak

Berrizko ezker abertzaleak aurrekontuen inguruko iritzia eman du

Berrizko Udalaren 2010. urteko aurrekontuen inguruan ezker abertzaleak bere iritzia jakitera eman du, “aurkeztu dugun emendakina”, hau da, zinegotzien dieten kopurua erdira jaistea, ez zen udalbatzarrean onartu, eta ezker abertzaleak adierazi duenez, “harritura geratu gara krisiak herritar askori ezartzen dion egoera larri honen aurrean PNVk, PSEk eta EAK azaldu duten ardurabakokeriagaz”. Ezker abertzaleak jakitera eman duenez, “udalbatzarrean argitu

“Guri tokatzen zaigun parte 15.360 euro langabeziari aurre egiteko bideratuko dugu”

“Udalaren aurrekontuaren eztabaidan herritarren parte-hartzea beharrezkoa da”

genuen legez, guri tokatzen zaigun parte, 15.360 euro, langabeziari aurre egiteko erabiliko dugu”.

Bestalde, ezker abertzaleak azaldu duenez, “Udalaren aurrekontuen eztabaidan herritarren parte-hartzea beharrezkoa dela deritzogu”; horretarako, “informazioa modu sinplean” eman behar da eta “aurrekontuak Udalak egiten duen gestioaren adierazle bilakatu”. “Aurrekontuak ulerterrazagoak” izan beharko litatekeela adierazi dute. ■ G.A.

GARAI

Bake Epailea aukeratzeko prozedura martxan

15 eguneko epea zabaltzeko dute kargua hartzeko interesa daukatenak aurkeztu ahal izateko

Garaiko Bake Epaile eta honen ordezkari karguek lau urteko iraupena izaten dute. Epe hori orain-tsu amaituta, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak aukeraketa prozedura berri ere martxan ipini du. Beraz, interesatuek Udalean aurkeztu dezakete eskabidea.

Lau urteko zikloan, kargua hartzen dutenek ordainsariak eskuratu ahal izango dituzte, ohi jarduerengatik ere diru-sarrerak eduki arren. Hautagaia izateko, ezin da alderdi politiko edo sin-

dikatu bateko kide izan. Ezgaitasun edo bateraezintasun auzietan murgilduta ere ezin da egon. Garain erroldatuta egoteak puntu bat emango die hautagaiei, baliagarritasunak bi eta euskaraz jakiteak beste bi. ■ M.O.

Karguetarako hautagaia izateko, ezin da ez alderdi politiko bateko ez sindikatu bateko kide izan

BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda
Catalana Occidente

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua
Andra Mari kalea, 9 DURANGO
Tel.: 94 681 50 17

"BODEGUILLA"
TRAÑA-MATIENA
Tfnoa. 94 681 43 85



ZALDIBAR

Durungaldeko txistulariek Juan Lasuen omenduko dute Zaldibarren

Juan Lasuen izan zen Txistulari Egunaren sortzailea orain dela 55 urte, txistu ikasle zela

Durungaldeko 55. Txistulari Eguna gaur ospatuko da Zaldibarren, eta 40 bat musikarik eta dantzarik Juan Lasuen omenduko dute; Txistulari Egunaren sortzailea. Lasueni txistu ikaslea zela bururatu zitzaion egun hau antolatzen has-

Zaldibarren 40 bat musikarik eta dantzarik hartuko dute parte, Durungaldekoek eta inguruko herrietakoek

tea. Orduko hartan, 10 txistulari batu ziren, 55 urte geroago entzuleen artean egongo da Juan Lasuen, antolatzaileek diotenez, "pozik ikusiko du ziur asko, berak

sortutako egun ederraren iraupen sendoa".

Durungaldeko Txistulari Eguna orain dela 55 urte Abadiñon egin zen lehenengoz, Durungaldeko txistulariek batzea eta txistu zaletasuna indartzea zen asmoa, eta horrela jarraitu dute urtez urte, antolatzaileek adierazi dutenez, "garaik agintzen dituen aldaketei egokitzuz, batez ere, erreperitorio mailan".

Aurtengo Txistulari Egunean Durungaldeko musikari eta dantzariak eta Zornotza, Bilbo, Barakaldo eta Ondarroatik etorritakoak ere batuko dira. Egitarauaren barruan kontzertuak daude, eta joko diren piezen artean, *Txantxibiri*, esaterako, Jesús Egiuren durangarrak moldatu du. ■ G.A.



Txistulari eguneko kontzertuan hainbat musikari arituko dira.

Mendiolarai, EAJko alkategai izateko hautagaia

Asteleheneko batzarrean erabakiko dute Idoia Mendiolarairen alkategai izendapena

Zaldibarko alkate den Idoia Mendiolarai da 2011ko udal hauteskundeetarako EAJk Zaldibarren aurkeztuko duen zerrendan alkategai izateko hautagai bakarra. Asteleheneko batzarrean erabakiko dute Mendiolarairen izendapena aurrera jarraitzen duen.

Idoia Mendiolarai orain urtebete pasatxo heldu zen alkatezara, Igor Barrenetxea-Arando ordezkatzeko; Barrenetxea-Arando 10 urtean Zaldibarko alkate izan zen Bizkailur sozietate publikoan eskaini zioten egitekoari ekiteko erabakia hartu zuenean, hain zuzen ere. Orain arteko ibilbidea "oso ontzat" baloratu du Idoia Mendiolaraik.

Alkategai izateko aukera "ilusio handiz" hartzen duela aipatu

du Mendiolaraik, eta alderdiari berarengan jarritako konfiantza eskertu dio; esan duenez, orain arte legez aurrerantzean ere "naizen guztia eta ahal dudana guztia emateko prest nago". ■ G.A.



MALLABIA



Auzokideek kartelak jarri dituzte BI-633 errepidean.

Traktore eta autoak hartuta, kontzentrazioa Trabakuan

Trabakuan pasabidea eta auzoetan sarrera duinak eskatzen dituzte

Mallabiko auzokideek traktoreekin eta autoekin kontzentrazioa antolatuko dute zapatuan, eguerdiko 12:00etan, Trabakua gainean. Antolatzaileek azaldu dutenez, 12:00etatik 12:30era, traktoreak eta ibilgailuak kartelez josiko dituzte. Trabakua-Zengotita eta Zengotita-Trabakua martxa egin do dute 12:30ean, traktore eta autoekin. Protesta horren bultzatzaileek oinezkoendako eta abereendako pasabidea eskatzen dute BI-633 errepidean, Trabakua pearn. Goita eta Gereako auzo-

kideek diotenez, Aldundiak errepide hori konpontzeko lanei ekin die. Lan horiekin bidea eta sarbi-deak hobetzea aurreikusten dute Zengotitatik Iruzubietaraino. Auzokideek konponketa horiek beharrezkoak direla diote, baina lan horiek "ibilgailuendako baka-rrik" direla kritikatu dute.

Sinadura bilketa martxan jarri dute, "Aldundiko arduradunekin elkarriketa bateskatzeko eta denon artean irtenbide bat aurkitzeko Trabakua gainean oinezkoen eta abereen arazoari, baita Zengotita eta San Martineko sarrera-irteereri". Udal

ordezkariak Itziar Garamendi Herri Lanen Saileko aldunagaz eta Mikel Iriondo Errepideetako zuzendariagaz martxoaren 5ean batzartu ziren. Proiektu horretarako ez dagoela dirurik eta beste egitasmo bat beharko dela azaldu zieten diote auzokideek. "Lanok urte honetan egiten dabilta, eta orain da aukera", salatu dute Mallabiko auzokideek. ■ J.G.

"Lanok urte honetan egiten dabilta, eta orain da arazoa konpontzeko sasoia"

IZURTZA

Zarrabeitia Izurtzako EAJren zerrendaburu

Izurtzako EAJko afiliatuen asanbladak aho batez erabaki du Oskar Zarrabeitia izatea 2011ko udal hauteskundeetan alderdiko alkategaia.

Zarrabeitiak 33 urte ditu eta ogibidez kontablea da. Legegintzaldi honetan EAJko bozerramailea da, eta aurreko hauteskundeetan jeltzaleen zerrendaburu izan zen. Laugarren legegintzaldia izango du hau Izurtzako EAJn.

Amankomunazgoan EAJren ordezkaria da, eta laugarren legegintzaldia du Izurtzako EAJn

Durungaldeko Amankomunazgoan EAJko ordezkaria da izurtzarra, eta Kultura, Kirola, Euskara eta Kontsumo Batzordeko presidentea. Zarrabeitia jeltzalea 1999an afiliatu zen EAJra. Izurtzako alkatetzarako hautagai aurkeztu den bigarren aldi izango da datorren hau.

"Izurtzarren alde lan egiteko ilusio handia daukat. Oraingo Gobernu Taldeak egin duen gestioaren lekuko izan gara, eta argi daukagu herriaren beharrak zeintzuk diren eta herritarrek zer eskatzen duten", dio Izurtzako EAJko alkategai izateko aukeratu dutenean. Gaineratu duenez, afiliatu jeltzaleek jasotako "babesa" eskertu gura die. Udal hauteskundeetara aurkezteko EAJren zerrenda osatzen laster hasiko direla aurreratu du. ■ J.G.



ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateylepe.biz

ELORRIO

Tortura eta inkomunikazioa salatuz, mozioa onartu dute

EAJ abstenitu egin zen eta testu alternatiboa aurkeztu zuen udalbatzarrean

Azken asteetako atxiloketen harira eta horietako bat Adur Aristegi elorriarra dela kontuan hartuta, Elorrioko udalbatzarrek tortura salatzen duen eta inkomunikazioaren amaiera eskatzen duen mozioa onartu zuen. Ezker abertzaleko zinegotzien botoekin irten zen aurrera mozioa; PSE-EEK aurka bozkatu zuen, eta EAJ abstenitu egin zen.

Niko Moreno alkateak Espainian tortura "modu sistemati-koan" erabiltzen dela salatu zuen: "Azken zortzi urteetan 955 atxilo- keta eman dira Espainiar Esta-

tuan eta 356 Frantzian. Frantzian lau tortura salaketa aurkeztu dira eta espainiar Estatuan 630. Kopuru eta datu argigarriak dira".

Jendez beteta zegoen udalbatzarrean, Adur Aristegiren aita Jesus Aristegi bere semeak "jasandako torturen" testigantza ere eman zuen.

Semeak salatutako torturen berri eman zuen Adur Aristegiren aitak joan zen asteko udalbatzarrean

EAJk "tortura mota ororen kontra" dagoela adierazi zuen, baina ez zutela baieztatu botoa eman- go, mozioak "bake prozesua eta normalizazio prozesua nahasten dituelako". Horren ordez beste mozio bat aurkeztu zuten eta ez zuten aurrera irten.

Mari Carmen Muñoz PSE-EEKo zinegotziak mozio bien kontra bozkatu zuen. Berak ere eza- gutzen dituela "torturak jasan dituztenen senitartekoak eta euren bidaiak" adierazi zuen, "baina bisita horiek hilerria egin behar izaten dituzte". ■ J.D.



Adur Aristegiren aitak "semea elektrodoekin torturatu" zutela salatu zuen.

Umeen parke bana, San Luis eta Nizeto Urkizun

Azkeneko udalbatzarren 110.000 euroko diru-atala aho batez onartu zuten San Luisen atzeko par- tean eta Nizeto Urkizun —erre- karen alboan— umeentzako jolas parke bana egiteko. Proposame- na aho batez onartu zuen udal- batzarrek. Lanak laster ipiniko dituzte lehiaketa publikoan, eta uztaila baino lehenago amaitzea da helburua.

Herriko hainbat txokotan daude umeendako parkeak, bai- na Niko Moreno alkatearen esa- netan, "zonalde horiek hazten dabilta, jende asko joan da ber- tara bizitzera eta proiektua behar- rezko ikusten dugu". ■ J.D.

Administrari laguntzailea eta bost behargin behar dituzte

Udalak eskaintzen dituen lanpostuak eskuratzeko izena emateko epea hasita dago

Tokiko enplegua sustatzeko helbu- ruagaz, Udalak sei hilabeterako administrari laguntzaile bat eta bost behargin kontratatuko ditu. Eskae- rak udaletxeko erregistroan aurkez- teko epea martxoaren 15ean zabal- du zuten, eta martxoaren 31ra arte eman daiteke izena.

Lanpostu hauek eskuratzeko beharrezkoa da INEMen edo Lan- biden inskribatuta egotea. Langabe- tua izatea eta langabezian egotea- rren ordaindutakoaren arabera- ko prestaziorik ez jasotzea, edo diru- sarrerak bermatzeko errenta jasotzea

eskaintzen dute. Administrari lagun- tzaileak, eskola graduatua, lehenen- go mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea eduki behar du. Oina- rriak interesatuen esku daude erre- gistroan, eta bertan agertzen den dokumentazioagaz egin behar da eskabidea. ■ J.G.

Udalak sei hilabeterako lanadi osorako kontratua eskaintzen die behargin hauei

DURANGALDEA

Gaztetxeen aldeko jaialdia



Durangaldeko eta Lemoako gaztetxe eta gazte asanbladek egi- tarau zabala antolatu dute biharko Zornotzan, Gaztetxeen Alde- ko Jaialdian. 12:00etan umeen jolasak izango dira, eta mahai- inguruak ere garatuko dituzte. Ondoren, trikipoteoa egingo dute herrian zehar. Segidan, bazkaritara batuko dira eta bazkaloste- rako karaokea prestatu dute. 18:00etan kalejiran irtengo dute jaialdian parte hartu dutenak. 19:00etan film laburren emanal- dia egingo dute. Azkenik, 21:00etan, Trastorno, Daltondarrak eta P.K.U. taldeen kontzertuen txanda izango da.

DURANGO

Internetera konektatzeko sarbide-guneak martxan

Durangoko Udalak Interneten ibili ahal izateko sarbide-guneak ipini ditu udal eraikinetan, wifi sistemaren bitartez. Hauek dira gune guztiak: Udala, Lariz Torre, Pinondo Etxea, Arte eta Histo- ria Museoa, San Agustin Kultur Gunea, Herritarren Arreta Zer- bitzua, Liburutegia, Udal Euskaltegia, Musika Eskola, Landako kiroldegia, Landakoko igerilekuak, Tabira kiroldegia eta Landako Gunea. Sarbidea librea da, pasahitz bakoa. Konektatu behar- reko sarearen izena 'durango' da. Gune horietan agertu dai- tezkeen beste sare batzuk erabilera publikokoak ez direla azal- du dute Udaletik, ohar batean.

IURRETA

Suhiltzaileak lekualdatzen hasi dira egunotan

Iurretako suhiltzaileen parkeak egoitza berria izango du laster, Mallabiena auzoan. Dagoeneko, "tresna eta ibilgailu batzuk" bertara eramantzen dituzte, Bizkaiko Foru Aldunditik baieztatu dute- nez. Datozen egunetan hainbat proba egingo dituzte, funtzio- namendua egokia dela ziurtatzeko. Horren ondoren, inaugu- razio ofiziala egiteko asmoa agertu dute. Eraikin berriak, Bil- bo, Donostia eta Gasteizerako norabideetan sartzeko erraztasun handiagoa ematen du.

Aurreko egoitza Goiurirako bidegurutzearen ondoan zegoen. Udalak erabaki beharko du zer egin hutsik geratzean.

ZALDIBAR

Hainbat langintzatan jarduteko zerrenda osatzen dabil Udala

Udal Euskara Zerbitzuak zerrendak osatu behar ditu zenbait lan- gintzatan aritu gura duten pertsona euskaldunekin: ume eta adi- nekoen zaintzaileak, kirol-begirale zein aisialdi-begiraleak eta eskola partikularrak emateko prest daudenak. Izena emateko azkeneko eguna apirilaren 9a da. Udaletxean edo honako e-mai- lean eman daiteke izena: eguen@zaldibar.org. Ez dute ezelako azterketarik edo probarik egingo.

Udalak bitartekari lana bakarrik egingo du; eskatzaile eta zerrendatuko jendearen arteko hartu-emana, hain zuzen ere.

anboto, durangaldeko astekaria

Egin zaitez harpidedun

harpidedun egiteko, deitu 94 681 65 58 telefonora edo anboto@anboto.org-ra zure izen-abizen eta helbidea bidali

BERBAZ >

“Oso gaitza da gizartearen zutabeak zertan aldatuko diren jakitea”

Xabier Aierdik datorren astean gaur egungo gizarteari buruzko hitzaldia emango du Esperientzia Institutuan.



Xabier Aierdi •

- Zeberioztarra
- Soziologoa, EHUko irakaslea eta Ikuspegi immigrazioaren behatokiko zuzendaria

dago: zer egingo dugu, krisitik irten berriro egiteko orain arte egindakoa, ala ‘deshazkunderari’ ekingo diogu? Eta deshazkundera zertarako? Ba, beharbada, denok bizi ahal izateko. Orain arte futbol zelaian ibili izan bagara, orain saskibaloiko erregelekin jokatu behar dugu. Eta ez ditugu ezagutzen. Gizartea bere zutabeetan desegiten ari da, eta ez dugu ordezko zutaberik bilatu.

Durangoko Esperientzia Institutuan egongo da, datorren martitzenean, Xabier Aierdi soziologoa eta EHUko irakaslea. Ate irekien eguna izango dute bertan, eta 55 urtetik gorako ikasleei ‘Egungo munduan bizitzeko gakoak’ hitzaldia emango die Aierdik. Azkeneko urteotako aldaketak eta gizartearen norabidea izango dituzte berbagai.

Hitzaldian zertaz berba egingo duzun aurreratu dezakezu?

Gizartean gertatzen dabil-tzan aldaketei buruz egingo dut berba. Soziologia munduan sarri esaten dugu gizartea eraberritzen dabilela, baina oraindik ez dakigu zer norabidetan. Esan daiteke orain arte gizartean eduki ditugun zutabe sendo batzuk pitutara joaten dabiltzala. Lan munduan, familian eta eremu politikoan aldaketa handiak egon dira, eta, azken finean, hiru eremu horiek inportanteak dira, pertsonen identitatean eragiten dutelako hirurek.

Gizarteagaz batera, gu ere aldatu egiten gara. Gizartea gu baino arinago aldatzen dabil, beharbada, gaur egun?

Nik esango nuke gizartea eta gu era berean gabiltzala aldatzen. Hor dugu, adibidez, lan mundua. Orain dela gutxira arte, pertsona batek bere bizitza profesionala enpresa batean hasten zuen

euren gurasoek erabili izan duten moduan.

Testuinguruagaz batera, baloreak ere aldatu dira?

Bai, zeharo. Adin batekoentzat gure bizimoduko ardatza lana izan bada, ez dago argi gaurko gazteentzat horrela izango den. Gazteek ikusten badute eurek egindako esfor-

eta eurak bat zetozen. Ikusi genuen oso gaitza dela gaur egungo gizartearen zutabeak zelan aldatuko diren jakitea. Unibertsitateko ikasleek konfirmatu egiten didate aldaketok bizi dituztela, eta Esperientzia Institutuan ere zera esaten zidaten: egia dela eurek bizi izan dutela urrezko aro bat, ezerezetik hasita garatu ahal izan dutelako bizitza nahiko duin eta seguru bat; hemendik aurrera eztabaidagai dagoena da zeren arabera egin ahal izango den bizitza duin hori.

Zer gertatuko den jakitea gaitza da, orduan.

Hau ezkerreko sektoreetan zabaltzen joan beharreko eztabaida izan beharko litzatekeela uste dut. Garapeneren inguruko eztabaida hor

“Esperientzia Institutuko ikasleek urrezko aro bat bizi izan dute; ezerezetik hasita bizitza nahiko duina garatu dute”

eta han berrogei urte ematen zituen; bizitza seguru bat zeukan. Beharbada lan baldintza txarrekin, baina seguru. Gaur egun, lan munduan ez dago segurtasunik. Esperientzia ez da baloratzen, gazteek gaitz daukate tituluaren araberrako lana topatzea, eta prekaritatea da nagusi. Aldaketa ikaragarria da; susmoa daukat gaurko unibertsitariak ezingo dutela ikasitakoa lanean erabili,

tzua ez daukala ordainik lan merkatuan, lana ordu batzuk sartzeko eta, batez ere, dirua irabazteko lekua izango da eurentzat. Lanaren bitartez barik, kontsumoaren bitartez garatuko dituzte identitateak.

Esperientzia institutuan arinago ere egon zara.

Bai, aurreko batean immigrazioa zela-eta egon diren aldaketak planteatu nituen,

“Daukagun immigrazioa gure beharrianetara egokitzen da”

Unibertsitateko irakaslea izateaz gain, Ikuspegi immigrazioaren gaineko behatokiko zuzendaria ere bazara. Zelan bizi dute etorkinek gizarteko egoera hori? Normal eta lasai, orokorrean. Hor ere aldatu egin zaigu panorama. Gaur egun kontratatzaileak familiak dira, batez ere. Familia eredu aldaturik dago; seme-alaba gutxi daukagu, jendea zahartzen dabil eta baten batek zaindu behar ditu nagusiak. Emakumeak etxetik irten dira lan egiteko, eta historikoki lan hori emakumeek egin dute. Familien premiak asetzeko, hor daude etorkinak. Batzuetan ematen du immigrazioa fenomeno kontrolaezina dela, baina, azken finean, ondo egokitzen da etortzen den immigrazioa daukagun beharrianetara.

▪ A.Ugalde

“Jokoaren arauak aldatu egin dira, eta ez ditugu ezagutzen”

EKONOMIA[>]

> ELORRIO

Mugarik bako greban daude Ductilor-Fytasako beharginak

Aurreakordiora heldu eta ordu erdira zuzendaritza atzera bota dela salatuko du enpresa komiteak

Greba mugagabeen daude Ductilor-Fytasako beharginak 21 pertsonen kalera-tzea eta soldaten murrizketa salatzeko. Jose Luis Etxeberria, LABeko ordezkariek azaldu duenez, enpresak "kaleratuko" dituen "21 beharginen zerrenda aurkeztu du, izen abizenekin, epaitegi merkantilean. Gainera, soldaten %15 murriztu nahi dute, eta ez dugu onartuko". Langileak astelehene-tik daude greba mugagabeen, "etorkizun laboral eta lan baldintza duin batzuen defentsan".

Enpresa komiteak azaldu duenez atzo zuzendaritzagaz 21 kaleratzea bertan behera uzteko aurreakordiora heldu ziren zuzendaritzagaz, "baina ordu erdi beranduago atzera egin zuten, inolako azalpenik eman gabe".

Mikel Elizburu ELAko ordezkariek azaldu duenez, "desadostasuna adierazi nahi dugu eta arazo honentzat irtenbide egokia lortu". Hori dela-eta, beharginak enpresaren aurrean jarri dira, "gogorra" bada ere, bertan egongo direla aipatu du Mikel Elizburu ELAko ordezkariek; "langileak prest" daude horretarako.

Elizburuk jakitera eman duenez, "eguztenez bost orduz bilduta egon ginen beharginak eta enpresa. Hasieran akordioa gertu bazegoen ere, azken momentuan



Beharginak enpresa aurrean jarri dira, eta bertan egongo direla diote. Juanra de La Cruz

LABek adierazi duenez, enpresak "inbertsioak Polonian duen plantan egin ditu, ez Elorrión"

enpresak hasierako proposamena atzera bota zuen. Eta orain akordio batera heltzea ez dago gertu". Enpresak kaleratzeko bederatzi bolondres eskatu ditu, eta badaudela dio Elizburuk, baina enpresak izenak jakin gura dituela adierazi ei du, "premiazko per-

tsionak" dituela-eta. Beharginak egoeragaz "nazkatuta" daude.

Elizburu ELAko ordezkariek Elorrioko "alkatea langileekin oso ondo portatzen dabilela" adierazi du, "karpa eta aulkiak utzi dizkigu, eta bilera Udaletxeko gela batean egin genuen". ■ A.U/G.A

> DURANGALDEA

"Otsaila XXIeko langileak ziren iraindu zutenak"

Durangoko EAJk bere postura azaldu zuen joan zen udalbatzarrean izan ziren "istiluen" inguruan

Durangoko EAJk pleno aretoan joan zen barikuan eman zuten prentsaurrekoan bere postura azaldu zuen azken udalbatzarrean izan ziren "istiluen" inguruan. Aitziber Irigorasek Durangoko Gobernu Taldearen izenean azaldu zuenez, udalbatzarreko kideak "iraindu" zituztenak "Otsaila XXI enpresako langile ohiak dira, eta ez Fundifesen enpresaren izenarekin dela eta langabezia dauden langile guztiak". Otsaila XXI enpresako langile ohiak "ez dira Durangokoak, eta erabakirik hartzekotan Durangoko Fundifeseko 28 langileen kasuan hartuko genuke". Durangoko Udaletxearen agendan berkalifikazio honek ez duela lehentasunik aipa-

tu du Aitziber Irigorasek, Gobernu Taldearen izenean. Langile ohiak "lurren berkalifikazioa egitean diru gehiago lortuko dute, oraingo egoeraren lur industrial batez lortuko luketena baino askoz gehiago. Horretarako, zinegotzien askatasuna mugatu, salaketa pertsonalak egin eta iraindu egin gaituzte". Bestalde, "langileen egoeraz baliatuz udal hauteskunderi begira gobernu politikoki ahultzeko asmoa" ez litzatekeela morala dio Irigorasek, eta bertan behera uzteko. ■ G.A

Irigoras: "Hartzekotan Durangoko Fundifesen kasuan hartuko genuke erabakia"

Jantokietako beharginak eta enpresak, negoziatzen

Eskola publikoetako jangeletan aste honetan ere greba egin dute, astelehen eta eguztenez. Durangoko LAB sindikatuko ordezkariek azaldu duenez, enpresa eta beharginen artean izandako bileretan "hasierako akordioa badago, enpresak egingadako proposamena aztertzen gabiltza". Proposamen horretan "aurrerapauso txikiren bat bada, baina zehaztu beharra dago". Astelehenean, baina, berriro bilduko dira.

LABek, ELAk, CCOOk eta UGTk deitutako 13. greba izan zen eguztenezkoa. Aste honetan, baina, jangeletan gutxienezko zerbitzuak gehitu dira. Beharginak lan baldintzak funtzionarioekin parekatzea eskatzen dute. ■ G.A

Jardunaldiak baserriar gazte eta baserritar gura dutenentzat

Bizkaiko EHNEk jardunaldiak antolatu ditu Durangon martxoaren 24tik 27ra; *Formakuntza eta elkartruckerako jardunaldia gazte baserritarrentzat eta baserritar gura duten gazteentzat*. Antolatzaileak azaldu dutenez, "baserritar gazte moduan esperientziak elkartrukatzeko lekua eta baserritar gura duten gazteei hainbat baliabide eskaintzeko aukera ederra da".

EHNEk Mundubat eta Europako Via Campesinaren laguntzaz antolatutako doako jardunaldietan izena emateko azken eguna martxoaren 22a da. Izena emateko orria eta programa www.baserrirabizi.info webgunean lortu daiteke edo, bestela, 946232730 telefonoan. ■ G.A

■ kolaborazinoa



Mauricio Garcia UGT sindikatua

Aldatu, ez murriztu

Gobernuak jubilatzeke legezko adina bi urte atzeratzeko proposamenak -jubilazio kalkulua egiteko urte kopuru hori handitzeko aukera utziz, gainera, eta neurriok gazteena eta emakumeena lako hainbat jende-multzok areago kaltetuko lituzkeela ahaztuz- sindikatuok (UGTk eta CCOOk) proposamen horren aurrean erantzun dezagun eragin du, elkartasunik bako, erregresiboa, desegokia eta gaizki planteatua deritzogulako bai garaia bai moduei dagokienez, eta hainbat mobilizazio egin behar izan dugu, otsailaren 27an Bilbon egindakoa, kasurako, milaka langile kalera aterarik delarik Gobernuak indarrean jarri nahi duen neurriaren kontra.

Mobilizazio hauen arrakastaren ondoren, Gobernuak proposamena baztertu du, "etenda" eta Toledoko Itunaren markoan eztabaidatzeko utziz; eztabaidatu behar den lekuan.

Lehenengo eta behin, 2006ko pentsioen akordioan hartutako konpromisoak bete beharko lirake. Hartu beharko litzatekeen norabideak oraingo eta etorkizuneko pentsioak hobetzeko ikuspegia izan beharko luke, eta hori ez da egiten gastu publikoa murriztuz. Espainian, gainera, indarrean dago jubilatzeke adina aurreratu edo atzeratzeko borondatezko aukera, jubilatzeke batez besteko adina 63,10 urtekoa delarik, eta 65era hurreratu dadin neurriak diseinatu beharko lirake. Onartu beharrekoa da, bestalde, Espainiako demografiaren adin tarte handiak daudela jaiotzen beherakadagatik, beraz, belaunaldi aldaketa ziurtatuko duten politika sozialekin lagundu beharko lirake familiak. Jubilazio malgu eta borondatezkoaren aldeko apustua egin behar da, murrizketarik barik eta sistemaren iraunkortasunari lagunduz. 50 urtetik gorakoentzako eta gazte zein emakumeentzako enplegu iraunkora sortu behar da. Gure babes sozialeko eta pentsio publikoen sistema zaindu behar da...

Hauek dira UGTk eztabaida-mahaira eraman dituen proposamenetako batzuk; Toledoko mahaira, eta ez kalera.

KULTURA>



Argazkia: Ana Domínguez

ANTZERKIA> IKASTAROA

Antzezleei zuzenduriko ikastaro trinkoa

Joan zen zapatuan, Abadiñoako Muntzaratz auzoko Banarte antzerki taldearen lokalean batu ziren Antzerkiola Imajinarioaren sortzaileetako bat izan zen Ander Lipusek gidatu zuen ikastaroan parte hartze-
ra gerturatutako antzerkizaleak.

Ikasle kopuruaren gehienezko muga 15 lagunetan ipini zuten antolatzaileek, eta laster bete ziren tokiak: interes handia piztu du eskualdeko antzerkigile eta antzerkizaleengan proposamenak, eta arrakasta nabarmena izan du Muntzarazko ikastaro trinkoak.

Entrenamendu fisikoaren zein ahots lanketaren inguruko trinkimailuak eskaini zizkieten zapatuko ikastaroan antzerkizaleei.

Goizean goiz hasi eta iluntzera arte, antzerki teknika eta praktika burutu zituzten.

Antzerkiaren teoriak eta praktikaren gaineko gaiak eskaintzen Ander Lipus aktore markinarrak jardun zuen Muntzaratzen: bere esperientzian oinarritutako jarraibideak parte-hartzaileekin konpartitu zituen Ander Lipusek.

Teoriari dagokionez, tradizio japoniarreko 'noh' antzerkiari eta Tadeusz Kantor antzerkigile poloniarrek sortutako teknikari buruzko dokumentazioa eskaini zieten parte-hartzaileei, besteak beste. Antzerki antropologiara gerturatzeko aukera ere izan zuten: teknika eta estetika berriak ikasteko jokia izan zuten bidea. ■ I.E.

Goizean hasi eta iluntzera arte iraun zuen ikastaroak

12 DF eskolaren azkeneko saioa

Martxoaren 24an Asier Altunak eta Eider Rodriguezek eskainiko duten saioagaz emango dute Plateruenero DF bertsozale eskolaren bigarren edizioa amaituzat.



13 Karrikaren antzezlan berria

'Oinez dabilen jende eskasa' izenekoa da Karrika antzerki taldeak martxoaren 20an San Agustinen estreinatuko duena. Zuzendariagaz egon gara.

BERTSOGINTZA > IKASTAROA

DF bertsozale eskolaren azken saioa martxoaren 24an

Eider Rodriguez idazlea eta Asier Altuna zinegilea izango dira datorren eguazteneko Durangoko Platerueneko azkeneko saioa gidatuko dutenak

Bertsogintzaren inguruko dibulgazioa egiteko helburuz Durangoko Plateruenean bigarren antolatutako DF bertsozale eskolaren ikastaroaren azken saioa izango da datorren eguaztenean. Herenegun, berriz, *Gara* eta *Berria* egunkaritan Euskal Herriko Bertsolari txapelketaren jarraipena egin duten Agin Rezolaren eta Iñaki Aurrekoetxearen saioa izan zen.

Bertsogintza euren esparruen ikuspegitik aztertuko dute

Berbaldi formatuko lau saioetan azkena datorren eguaztenean, martxoaren 24an, izango da Plateruenean. Eider Rodriguez idazle oreretarra eta Asier Altuna zinegile begarrara gonbidatu dituzte azkeneko saiorako.

Txapelketa Nagusiari buruzko euren ikuspegia azalduko dute martxoaren 24an, beraz, sormenaren beste eremu banatan jarduten duten Eider Rodriguezek eta Asier Altunak, Platerueneko aurtengo ikastaroaren bigarren edizioan parte hartzeko izena eman duten ia hogeita hamar bertsozaleen aurrean.



A. Ugalde

Martxoaren 4an izan zen bigarren edizioaren lehenengo saioa, eta txapela lau aldiz jantzi duen Andoni Egaña izan zen ordukoan Plateruenean: Bertsolari Txapelketa Nagusiak zelan bizi izan dituen bertan parte hartu izan duen zazpi aldietan azaldu zuen zarauztarrak. Bera Euskal Herriko Txapelketan parte hartzen izan denetan, 1986 eta 2009 urteen arteko txapelketetan bertsogin-

tzaren bilakaera aztertu zuen Egañak DF eskolaren bigarren edizioaren lehenengo saioan, eta Maitte Berriozabal eta Unai Elizasugai-jartzaileek gidatu zuten orain astebeteko saioa. ■ I.E.

Bigarren edizioa izan du ikastaroak aurtan, eta 30 bertsozale batu dira

GEURE DURANGALDEA



Fernan Ruiz
Berbaroko kidea

Sorlekuan arrotz

Duela gutxi iritsi da hona, gure herrira. Ez dator *gau iluneko*en planetatik, baina triste dagoela entzun diot, ez baitu hemen bizi nahi. Ekuadoreko marrantik gertu du bere jaioterria, horrela azaltzen du berak; aitarekin etorri da eta beste guztia han dauka: ama, lagunak, bizilekua, bere ohea, lur zatitxo kuttuna, bero ikaragarria, jejen gogaikarriak, euriteak... Eta hori nahi du, hara itzuli, ez besterik.

Batzuetan Interneten sartu eta bere herrialdearen irudi, albiste eta kontuak irakurtzen jarduten du. Bitxia da, horrelako saio baten ostean begiek diz-diz egiten diote, eta pozago agertzen da, berbatsuago. Baina hara itzuli nahi du, han daukana maite baitu.

Norberaren atsekabeak norberarenak dira, ez beste inorenak, eta egoerak alderatzerik ez dagoen arren, gazte horren antzeko sentimena izan dut inoiz; esaterako, "La Madre Patria" delakoak berekiko konpromisoa betetzeko etxetik urrun eroan ninduean.

Ez naiz argiaren bila ibiltzen den horietakoa; beldurraren beldurrez, akaso. Zuztarrak ondo sakonean, nahiago ilun eza-guna argi itsugarria baino. Ekuadoretik gertu bere sorlekuari lotuta dagoen gazte horri gertatzen zaion antzera, neuk ere lur zatitxo kuttunera itzuli nahi nuke.

Ez ditut gogoko inguruan, ingurunean, egiten diren eraldaketa bortitzak; are gutxiago zelan egiten diren. Ez dira nire gustukoak eta kito. Badakit munstro lur-jalearen burrundara ikaragarria iritsiko dela, eta basoen aieneak barreiatuko dira bailaran barrena; orduan bai sentituko naiz nire sorlekutik kanporatua, eta hara itzuli nahi izango dut; Ginebra erregina erbesteratua izan zen Etxaburu dorrean bizi zenekora, agian.

ARGAZKIGINTZA > ERAKUSKETA

Zornotza Zentroan, apirilaren 6ra arte, ikusgai izango da Medicus Mundi elkarteak antolatutako Malariari buruzko erakusketa. Txelu Angoitiak argazkilaria durangarraren argazkien bilduma bat da *Malaria. Kinshasara bidaia*, eta gaixotasunak Kongon eragiten dituen ondorio sozial eta ekonomikoetara hurbilazten gaituzte.

Hasi, esandako moduan, Zornotzan hasiko da Txelu Angoitiaren argazki erakusketaren bidaia, baina Getxon, Donostian, Zaragozan eta Alemaniako hainbat hiritan ere erakutsiko dituzte erakusketa honetako argazkiak. Saharaz hegoaldeko herrialde askotan malaria pandemia bilakatua dela eta Kongoko herritarrek zelan bizi duten erakusten dute Angoiti durangarraren argazkiak.

Malariak eragiten dituen kalteetara gerturatzeko irudiak

Zornotza Zentrotik beste hainbat herritara eramango dute

Munduko 109 herrialdeetako 250 milioi laguni eragiten dien gaitza pobreziaren ondorioenez, eragotzi daitekeen zerbait dela azpimarratzen du mundu mailako *Stop Malaria Now* kanpainagaz bategiten duen Medicus Mundi Bizkaia GKEak.

Kongoko Kinshasako kaleetan Angoitiak ikusitakoaren argazkiak

Munduan 250 milioi laguni eragiten dien gaixotasuna da malaria

Erakusketara gerturaten direnak malariak pobreziagaz daukan lotura estuaz jabetzea da erakusketaren helburua, Hegoaldeko herrialdeetan egunean milaka pertsona hiltzen dituen gaixotasunaren kontra norbanakoak zer egin lezakeen gogoetara ekartzea.

Kinshasako kaleetan, ehorz-tetxeetan eta eskasian kongotarrek eguneroko bizitzari aurre egiteko energia zelan ateratzen duten ere erakusten dute argazkiak. Eragotzi litekeen benetako pandemia baten testigantza dira argazkiok.

Angoitiak Kinshasan egindako argazkien erakusketa: 'Mal aire'

Kongon egindako argazkiak Zornotza Zentroan, apirilaren 6ra arte ikusgai



'Stop Malaria Now' kanpainaren parte da argazki erakusketa. T.Angoitia

ANTZERKIA > ESTREINALDIA

Bihar estreinatuko du Karrikak 'Oinez dabilen jende eskasa' lana

Martxoaren 20an, bihar, entsegu-gune ere baduten Durangoko San Agustin aretoan egingo dute **Karrika** antzerki taldekoek antzezlan berriaren estreinaldia. Pertsonen kontrako minek sortzen dituzten kalteei buruzko antzezlanaren sortzen urtebete pasatxo eman du Karrikako gazteen taldeak. 'Oinez dabilen jende eskasa' da urtebeteko dedikazio horren emaitza, eta Durangon aurkeztu eta gero beste antzoki eta areto batzuetan antzeztea dutela helburu azpimarratu digute Karrikakoek.



Kepa Aginako

baren esangura ez dela batere zehatza azpimarratu arren, "gazteak bereziki ukitzen dituzten gaiak landu ohi ditu Karrikak", dio zuzendariak, motibagarriak horietatik gertatzen zaizkielako: *Oinez dabilen jende eskasa* obrako protagonistak, pertsonen kontrako minen eraginak gehien pairatzen dituztenak, umeak eta gazteak direla azaldu digu zuzendariak. "Markatu-tako mugetatik kanpo jolastera joatera bultzatzen ditu umeak euren izaera anarkikoak", dio, "eta eurek jasaten dituzte leher-gailuen eraginak ere".

Dramatizazio tailerra eta eraikuntza edo plastika tailerra dituzte Karrika antzerki taldean. Horrela, oholtzara begira, obra batek behar duen alde dramatiko edo espresiboa joaten dira obrak sortzerakoan gorpuzten. Aldi berean eraikitzen joaten dira, bestalde, antzezlanean behar den atrezzo eta obra janzteko funtzioa duten arropak.

Hogei laguneko taldeak jardun du 'Oinez dabilen jende eskasa' sortzen

Antzezle nagusiak bedertzi izango dira eta lau antzezle-laguntzaile izango dituzte *Oinez dabilen jende eskasa* obran, zuzendariak azaldu digunez. Lan dramatiko hori lagundu eta indartzen, antzezlanerako eszenografia eta jantziak sortzen, beste zazpi-zortzi lagunek jardun dute tailerrean, azken urtebete baino gehiagoan. Zuzentzen eta arlo teknikoan beste hiru lagun daude; guztira, beraz, hogei bat lagun dira *Oinez dabilen jende eskasa* antzezlanaren osatzen dutenak; bakoitzak bere tokia du Karrika antzerki taldearen egitura horretan. ■ I.E.

Dozena bat urte egingo ditu Karrika antzerki taldeak laster, eta, urteotan legez, antzezlan berri bat estreinatuko dute aurrean. Martxoaren 20an Durangoko San Agustin kultur-gunean egingo dute *Oinez dabilen jende eskasa* antzezlanaren estreinaldia. Hamabi urteko historian, urtean behin ikuskizun berria kaleratu izan du Karrikak: *Fartsaizan* zen lehenengo oholtzaratu zutena, eta azken urteetakoak, orain urte biko Martxoak 31n estreinatu zutena eta iazko irailean erakutsi zuten *Ametsen Faktoria* izan dira, besteak beste.

Artemio Zarco idazleak 7K astekarian argitaratutako artikulubat du bihar aurkeztuko duten antzezlanaren oinarri, Karrikako zuzendariak azaldu digunez. Orain zazpi urte inguru argitaratutako testua da Zarcorena, eta Txotxe zuzendariak gogoratu duenez, artikulua irakurketak bultzatuta sketx bat idatzi zuen orduan: bere sasoiaren sketxak oholtzaratu zuten arren, "sketx horretatik tiratu eta obra luzeago bat sortzea erabaki arte kaxoi batean egon da *Oinez dabilen jende eskasa* gordeta".

Obra labur horregaz esperimentatzen eta inprobisatzen hasi, eta horrela joan da bihar erakutsiko duten antzezlan hau formahartzen. Istoriok garapen

Artemio Zarco idazlearen artikulubat du Karrikaren azken lanak oinarri

Orain zazpi urte idatzitako obra laburretik tiraka sortu dute antzezlanaren

Pertsonen kontrako minen kalteak jasaten dituzten ume eta gazteei buruzkoa da

dramatikoa nondik izan lezakeen aztertu eta gero ekin zioten testua eta gidoia idazteari. Aldi berean, Karrikaren lan egiteko metodoari eutsiz, sortzen joan zaizkien eszenografia eta jantzien beharrak ere taldekideak eurak joan dira osatzen, sortzen.

Karrikako gazteen taldea da *Oinez dabilen jende eskasa* antzezlanaren protagonista, baina taldean urte gehiago daramatzaten kideen laguntza ere izan dute. Antzezlanaren gaia bera ere bereziki interesgarria da Karrikako gazteentzako. "Gaztea" ber-

Testuari eta berbari beste, irudiari eta arlo plastikoari garrantzia emanez

Kurutzia ikastolan eszenografia eta jantziak lantzeko tailerra eta entseguetarako lekua Durangoko San Agustin kultur-gunean dauzka Karrika antzerki taldeak. Azkeneko urteetan sortu dituzten antzezlanak estreinatzeko gune ere badute Durangoko San Agustin.

Talde bik osatzen dute gaur egun Karrika; hasi berriagoak diren gazteena eta taldean urte batzuk badaramatzatenena. Antzezlanak sortzeko ere bi modu izaten dituzte Karrikan: bata ideia batetik abiatu eta inprobisazioaren bitartez oholtza gainean esperimentatuz forma ematen joatea da; beste batzuetan, aurretik idatzitako testu bat oinarri hartuta sortzen dituzte antzezlanak.

Gazteek bihar dute azken urtebete baino gehiagoan landu dutena erakusteko aukera, eta Gabonetan dute helduen estreinaldirako hitzordua: prostituzioaren inguruko *Hau ez da*

Calcuta estreinatuko dute neguan. Lan guztietan, testua eta berba bai, baina alde bisuala ere asko lantzen du beti Karrikak: antzezpena, musika, mugimendua, atrezzo, jantziak...



K. Aginako

MUSIKA > EMANALDIA

Lau piano-jotzaile berriztarren entzunaldia Kultur Etxean

Martxoaren 26an, 22:00etatik aurrera, Berrizko Kultur Etxean izango da lau piano-jotzaileen emanaldia; pieza klasikoak eta garaikideak joko dituzte

Berrizko Musika Ikastegian ikasle izandako bi berriztarrek —Daniel Ansorregi eta Anais Fernandezek—, orain urte batzuetara arte irakasle izandako Marta Narbaizak eta gaur egun piano klaseak ematen dituen Ana Mari Aldekoa piano irakasleak Kultur Etxean eskainiko duten lehenengo emanaldia izango da, martxoaren 26an, 22:00etan, eskainiko dutena. Musika Eskolako ikasleekin urtero udaberrian antolatzen duten emanaldia egiten 21 urte daramatzate eskolakideek, baina lehenengoz jesarriko dira

Daniel Ansorregi, Anais Fernandez, Ana Mari Aldekoa eta Marta Narbaiza pianoan

'Claro de luna' eta 'Yesterday' eskainiko dituzte, besteak beste

datorren bariku gauean Kultur Etxearen oholtzan ipiniko dituzten pianoak jotzera.

Saioaren errepertorioa anitza izango dela aurreratu digute; pianorako pieza klasikoak ez ezik, kanta garaikideak ere eskainiko dituztela. Klasikoetan, Chopinen *Nocturno* pieza eta Beethovenen *Claro de luna* eskainiko dituzte, eta konposizio garaikideen artean, Mikel Laboak musikatutako Xabier Leteren *Negu Hurbila* eta Beatlesen *Yesterday* joko dituzte, besteak beste. Lau eskutara pieza bana joko du gainera, bikote bakoitzak.

FILM LABURRAK >

Ezazu Film Fest martxoaren 20an, zapatuan, Plateruenean

Bihar, 18:00etan hasita, Durango-ko Plateruenean izango da Ezazu Film Fest filme laburren lehiaketara aurkeztutako lanen emanaldia. Jaialdiaren antolatzaileek hautatutako hamaika lan aurkeztuko dituzte Ezazu Film Fest jaialdiaren lehenengo edizioan. *Aberri*, *Sindrome de Estocolmo*, *El pintor*, *Inboluzio*, *Cara a la pared* edo *Ardia* dira aurkeztuko dituzten lanen izenburuetako batzuk.

Emanaldiaren ostean, Uxua eta Froufe bakarlarrien kantaldiak 21:00etan, jaialdiaren sari bana-keta ekitaldia, eta Ruben Kostas eta Iker Undersound dj-en eskutik gau elektronikoa izango dira ondoren, Plateruenean.

ZUZENKETA

Joan zen asteko, martxoaren 12ko, alean Anbotoren azalean eta 13. orrialdeko erreportajearen Bide Ertzean taldeak Elorrioko Arriola aretoan kontzertua egun hartan eskainiko zuela jaso genuen. Okertu egin ginen, kontzertua martxoaren 18an, atzo, eman baitzuten. Eragindako kalteengatik barkamena eskatu gura dizuegu kontzertuaren antolatzaileei, taldekideei eta Anbotoren irakurleei.

ANTZERKIA > EMANALDIA

'La muerte y la doncella' Elorrioko Arriolan eta San Agustinen

Ariel Dorfman idazle argentinarraren Saga ekoiztetxearen *La muerte y la doncella*ren irudiko moldaketa taularatu zuten eskualdean joan zen astean; barikuan Elorrioko Arriolan eta Durango-ko San Agustinen domekan. Durangaldeko oholtzan biotan, Luisa Martin, Emilio Gutierrez Caba eta Jose Saiz Martin aktoreak bertatik bertara ikusteko aukera ez zuen galdu gura izan Durangaldeko lagun askok. Antzezleen izen-abizenek edo obraren argumentuak erakarrira, ikusle asko gerturatu zen *La muerte y la doncella*ren Eduard Costaren moldaketa ikustera.

Leku eta garai oso zehatz batean kokatutakoa baina gai unibertsalei buruzkoa da joan den asteburuan Durangaldean ikusgai izan duguna: Pinocheten diktaduraren osteko Txileren eta ikasle zela torturatu zuen gizona bahitzen duen emakumearen istorioa ekarri ziguten Elorri eta Durango antzokietara. ■ I.E.



Kepa Aginako

PLATERUENA Durango Kafe Antzokia

www.plateruena.net

MARTXOAK 20 18:00etan
EZAZU FILM FEST
Film labur lehiaketa
ZINE PROIEKZIOA. Sarrera doan.

MARTXOAK 25 20:00etan
KOBLAKARIAK BEHAR DITUGU
ZILAR ASTEA: Joseba Sarrionandia
LITERATUR IKUSKIZUNA. Sarrera doan.

MARTXOAK 28 10:00etan
IBILBIDE BAT MEMORIAREN MAPAN
ZILAR ASTEA: Joseba Sarrionandia
LITERATUR IBILBIDEA. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

OINEZ DABILEN JENDE ESKASA
LEILAREN BIDAI
Karrika Antzerki Taldea (Durango)
Martxoak 20 • 22:00etan

UHARTE EZEZAGUNAREN ISTORIA
Markelñe Antzerki Taldea (Zornotza)
Martxoak 21 • 18:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

11.94 601 07 76 Artekale, 4 DURANGO

HITZ

Liburudenda

ZOULAR ASTEA OTU

JOSEBA SARRIONANDIEN

idazle iurretarraren gaineko aste tematikoa (martxoak 24-28)



OBBLAKARIAK BEHAR DITUGU
 GOTZON BARANDIARAN, MIREN AMURIZA, EÑAUT
 ELORRIETA, KARRIKA ANTZERKI TALDEA, UNAI
 ITURRIAGA.
M24 10:00etan, Plateruenean (ikastetxeentzat)
M25 20:00etan Plateruenean (emanaldi zabala)

AULKI HUTSA
**LE PETIT THEATRE
 DE PAIN**
 Antzerki tal-
 deak Joseba Sarrion-
 andiaren testue-
 kin osatua.
M26 22:00etan
 San Agustin
 Kulturgunean

**IBILALDI BAT
 MEMORIAREN
 MAPAN** Joseba
 Sarrionandiaren testue-
 tan oinarritutako
IBILBIDEA.
 0:00 Aita San Migel plaza
 0:20 San Mames ermita
 1:05 Goiuria
 1:30 Axxorra
 1:50 Ertzilgo garaia
 2:10 Aita San Migel plaza
M28
 10:00etan Plateruenetik.



**LITERATURA
 ESKOLA**
XABIER MENDIGUREN
 idazlea Joseba
 Sarrionandiaren
 ipuingintzaren
 gainean berbetan.
M27 10:00etan
 Udal Liburutegian.

laguntzaileak:

antolatzaileak:



Zilar Astea: Sarrionandiaren obra herrira eta plazara



Atzo egin zuten ekimenaren aurkezpena, Durangoko Plateruena kafe antzokian. Ana Dominguez

Martxoaren 24tik 28ra bitartean, Zilar Astearen lehenengo edizioa burutuko dute Durangon. Hainbat eragile eta ikastetxeren bultzadaz, urtean behin antolatuko den aste tematikoa da Zilar Astea. Ekimenari hasiera emateko, Joseba Sarrionandia idazlea hartu dute lan ardatz.

Egitasmo honen atzean hainbat eragile eta ikastetxe dago

Herri-kulturgintza lantzeko asmoz jaio da Zilar Astea. Durango osoko talde eta guñeeekin, zein Euskal Herri osoko eragile eta artistekin, urtean gai bat landu eta plazaratuko dute; gai jakin bat, autore bat edo gertakari bat. Aurtengo lehenengo edizio honetan, Joseba Sarrionandiari eskainiko diote aste tematikoa.

Egitasmo honen atzean hainbat plateru edo zilargin daude: Plateruena kafe antzokia, Berbaro euskara elkarte, Karrika antzerki taldea, San Agustin kulturgunea, Literatura Eskola, Jesuitak ikastetxea, Ibaizabal ikastola, Durangoko Institutua eta Maristak ikastetxea. Hezkuntza eremuan ere izango du, beraz, eragina.

Ekimen anitza eta aberatsa da Zilar Astea. Izan ere, disziplinartekotasuna jorratuko dute: euskarazko kulturaren adierazpideetan urtean-urtean aukeratutako gaiak izan duen trataera landu eta horretan diharduten artistak elkartuko dituzte.

Garaizarko idazleaz

Esandako moduan, Joseba Sarrionandia (Iurreta, 1958) idazlearen obraren inguruan garatuko da lehenengo Zilar Astea. Antolatzaileek adierazi dutenez, aste tematikoaren ezaugarriak "ondo baino hobeto" islatzen dituelako aukeratu dute iurretarra. Hasteko, "obra oparoko eta aberatseko autore" dela azaldu dute. Sarrionandiaren lanari erreparatzen badiogu, hainbat generotan murgildu izan dela ikusiko dugu: poesia, narrazioa, saiakera, haur literatura, itzulpenak...

Gainera, bere lan horrek adierazpide ugaritarako jauzia egin du, "euskal idazlerik kantatuen eta oholtzaratuenetakoa" dela diote plateruek; Ruper Ordorika, Mikel Laboa eta Muguruza anaien testugile izan da, esaterako. Hainbat ikuskin zunen oinarri ere bai: Kukairen *Hnuy illa*, Gaitzerdi Teatrotoren *Decir lluvia y que llueva...*

Sarrionandiaz jarduteko beste arrazoi bat bertakoa izatea da, "Durangaldeko semea". 1980tik, baina, herritik kanpora dabil. Izan ere, kartzelan sartu zuten, eta handik bost urtera ihes egitea lortu zuen. Bizipen horiek markatuta idatzi izan du; *Gartzelako poemak* eta *Ni ez naiz hemengoa* izan daitezke horren adibide. Dena dela, ez da bere sorlekuaz ahaztu, eta halan erakutsi zuen *Akordatzen* saiakera lanean.

Garaizarko idazlea plazara ekarriko du Zilar Astearen lehen edizioak. ■ M. Onaindia.

Sarrionandia hainbat generotan murgildu izan dela ikusi daiteke

Bere lan horrek adierazpide ugaritarako jauzia egin du

“Sarrionandia gazteei gerturatu gura diegu”

Proiektu ugarian ikusi dugu Gotzon Barandiaran olerkari larrabetzuarra, Bihotz Bakartien Klubean edo Katamalon, adibidez. ‘Koblakariak behar ditugu’ saioan parte hartuko du.



Hilaren 24an eta 25ean izango zara Durangon. Nondik dator ideia?

Plateruenekoei deitu ziguten ekimen berezi bat antolatu behar zutela esanez. Guk, Larrabetzun, antzeko literatura emanaldiak antolatu izan ditugu, Literatura Eskolaren bidez eta abar. Gure emanaldian, iurretarraren poema eta narrazioak hartuko ditugu kontuan; hunkigarriri eta gogorak zein komikoak. Irakurritz, abestuz, antzeztuz eta bertsoan azalduko ditugu. Ordubete eta laurden inguruko iraupena izango du, eta Sarrionandia ezagutzen dutenentzat zein ezagutzen ez dutenentzat aproposa izango da.

“Denbora eta espazioaren inguruan egituratuko dugu emanaldia”

Zeren gainean garatuko da zuen ikus-entzunekoa?

Gure iritziak, Joseba Sarrionandiaren obra ulertzeko ezinbestekoak diren bi kontzepturen inguruan egituratuko dugu zuzeneko emanaldi hau: denbora eta espazioa. Faktore horiek idazle eta sortzaile askoren kezka izaten dira, baina Sarrionandiaren kasuan garrantzia berezia hartzen dute, bere egoera pertsonalgatik. Berak idatzi izan duena egoera latz, muturreko eta bazterrekoetan egin du. Bere testuetan beti presente dago, batez ere kartzelatik eskapatu eta dese-

rrian dagoenetik, etxera bueltatzearen kontzeptua: aberrira, sorterrira, Durangora, Garaizarrera, Iurretara... Kartzelako sasoiaren presente izan du, eta erbestea ere bai: inongoa ez izatearen sentsazio hori.

‘Koblakariak behar ditugu’. Zergatik?

Martin Larralde testuan, berak aipatzen du inork ez duela koblakaririk behar, kontrako zentzua eman guran. Nik ere hala pentsatzen dut: egungo egoeraren kronistak behar ditugu. Gurean Iturriaga eta Amuriza izango dira; Elortza ere, atzean, oso presente dago. Bertsolari-tzak, musikak, literaturak... ezin dute galdu kronista izaera hori.

Ikastetxeetan ere bazabiltza lanean...

Honen osagarri legez planteatu dugu. Aipatzekoa da, orain arteko esperientzietan, ikasleentako batzuek ez dakitela Iurretako idazlea nor den, ez dutela ezagutzen. Beraz, lagungarri izango zaie. Emanaldietara joan aurretik, ikasleek Sarrionandiaren obraren inguruko ikastaro txiki batzuk egitea da asmoa. Hamarnaka taldek musikatu dituzte bere testuak azken 30 urteotan. Horren aitzakiaz, euskal literatura eta musikaren arteko hartu-emana eta elkarreragina aztertzen gabilta, tailer formatuan.

Kuriosoa da kanpoan bizi arren hemen duen arrakasta...

Lehenik eta behin, bere testuen kalitateagatik dela pentsatzen dut. Horrek, enpatia sortu du euskaldunen artean. Gainera, XX. mendeko euskal poeta handienetakoa dela esango nuke. Bestalde, bere egoera pertsonalak mitifikazio bat ere eragin du.

M-24, 25: ‘Koblakariak behar ditugu’

Ikus-entzunezko honek emango dio hasiera egitarauari. Hilaren 24ko emankizuna ikasleentzako izango da, goizeko 10:00etan Plateruenean. Hurrengo egunekoak, zabalak, leku berean baina iluntzeko 20:00etan.

Sarrionandiaren testuak oinarri, Gotzon Barandiaranek errezitaldia egingo du, Unai Iturriagak eta Miren Amurizak bertsoan egingo dute, Eñaut Elorrietak abesteko ardura izango du, eta Karrikakoek esketxak aurkeztuko dituzte.



M-26: ‘Aulki Jokoa’ antzezlan

Le Petit Théâtre de Pain konpainiaren obra hau izango da ikusgai martxoaren 26an San Agustinen, gaueko 22:00etan. Iurretako idazlearen zenbait idatzi erabilita, erbestetik bueltatu ezin den gizon baten istorioa kontatzen digu Lapurdiko taldeak, Ander Lipus zuzendari duela. Bakardadetik ihes egin gurako du protagonistak.

Manex Fuchs ibiliko da aktore lanetan, eta Battitt Elissalde izango da musikaria.



M-27: Literatura Eskola, Mendigurenegaz

Xabier Mendiguren idazle beasaindarrak emango du Literatura Eskolako hitzaldia. Literatura aztertzea du helburu eskola honek; era ibiltarian Euskal Herri osoan dabil, astean herri batean. Hilaren 26an Durangon izango da hitzordua, goizeko 10:00etan, Udal Liburutegian.

Sarrionandiaren ipuingintzaz ariko da Mendiguren. Bertaratzen direnentzako hiru liburu irakurtzea gomendatu du: *Narrazioak*, *Atabala eta euria* eta *Ifar aldeko orduak*.



M-28: Memoriaren mapan oinezan

Kartzelak eta erbesteak duten moduan, Joseba Sarrionandiaren letretan sorlekuak ere izan du lekua. Makina bat erreferentzia egin izan ditu Iurretara, Durango eta inguruko parajeetat. Horregatik, Zilar Asteari amaiera emateko, iurretarrak aipaturiko gune batzuetan zehar ibilalditxoak antolatu dute hilaren 28rako.

Goizeko 10:00etan izango da irteera, Plateruenean. Iurretako Aita San Migel plaza, Goiuria, Axkorra eta Ertzilgo garaitik pasatuko dira.

IRITZIA >

Gutunak @

Durangoko Euskal Herrian Euskarazen oharra

Durangoko herritarroi zuzentzen gatazkizue, euskararen ordenantzen inguruko gure hausnarketa eta posizionamendua azaltzeko:

Lehenik eta behin, argi utzi nahi dugu, EHE izan zela herri honetan lehena ordenantzen beharra kaleratu zuena eta, ondorioz, hauen falta salatu zuen lehena ere izan zen. Urte batzuk badira lehenengoz gai hau lantzen hasi ginela. Gure helburua Durango eta Euskal Herri euskaldun bat diren heinean, oso garrantzitsutzat jotzen genituen eta jotzen ditugu euskararen ordenantza egoki batzuk, benetako normalkuntzarako pausuak emateko udalerrian.

Horregatik, oso begi onez hartu genuen Euskara Batzordean ordenantza ereduak lantzen zebiltzala jakin genuenean. Gure kide batek proposaturiko ordenantza baten inguruko ekarpenak egin ahal izan dituen arren, osoagoak eta zehatzagoak ziren beste batzuk albo batera utzi ziren.

Plenora joango diren ordenantza hauek ondo aztertu ondoren, argi daukagu ez direla Durangok merezi eta behar dituenak. Are gutxiago Udalean agintean daudenean ordenantza izaera emango ez diotela jakin dugunetik; hau da, ez dira bete beharreko neurriak izango. Guretzat, ordenantza bat onartzen den momentutik bete behar den legedi bat da, eta hauekin ez da hori gertatuko. Ez dira udal, langile eta herritarrentzako bete behar bat izango eta, horrela, gauzek berdin jarraitu edo txarrera egingo dute. Nahiz eta lan asko egin den, eta asmorik onenarekin, azkenean politikoki batzuk aurpegia zuri zeko tresna bezala erabiltzeko besterik ez da izango. Testua oso orokorra da, eta zehaztasun falta handia dago; gaikako neurri zehatzak falta dira, datak, eta bete ezean zigorren aipamenik egin ere ez da egiten. TAOaren ordenantzek argi diote diru bat ordaindu behar dela aparkatu ahal izateko, edo bestela isuna jarriko dutela; zer gertatuko da Udalak lanpostu bateko euskara maila bermatzen ez badu? Ezer ere ez. Eta hor dago arazoa.

Gainera, Euskal Herriko eta Durangoko berezko hizkuntza bezala euskarak behar duen lehentasunezko irudia faltan botatzen da. Elebitasunaren diskurtsoa gailentzen da eta euskarak, menpekotik lehentasunezkoa pasatzeko, lehentasunezko politika nabarmena behar du. Zehaztapen gabeko testu hau onartuta, ez dira herritarren hizkuntza eskubideen urraketa sistematikoak desagertuko udal administrazioetik.

Horregatik, gutun honen bidez jakinarazi nahi dizuegu Durangoko Euskal Herrian Euskarazek ez duela euskararen "ordenantza" hori onartuko. Laburbilduz, hiru arrazoi nagusi daude gure ezezko borobila jaso dezan:

1. Izen hori eduki arren, ez dira ordenantzak izango eta, ondorioz, ez dira bete beharrekoak izango.

2. Ordenantzak behar baldin badira, koofizialtasun politikaren porrot garbiagatik da. Beraz, ezin dugu elebitasun horretan oinarritutako proposamenik onartu. Euskarari dagokion lehentasunezko trataera eman behar dion ordenantza duina behar dugu.

3. Proposamen horrek ez du hizkuntza eskubideen errespetua bermatuko; ez langileena, ezta herritarrena ere.

Gure hausnarketak herritarroi ere zer pentsatua emango dizuelakoan; bil dezagun euskalduntzearen aldeko indarra:

Hau guztia dela eta martxoaren 23an manifestazioa burutuko dugu 19:00tan Txiki Otaegitik hasita.

Euskararen ordenantza duinak orain!

Durangoko Euskal Herrian Euskaraz

Klik batean @



Akats tipografikoa

Durangoko Landako Guneko aparkalekuan ondorengo kartela topatu du *Anbotoko* irakurle batek. 'Ostirala' beharrean 'ostilala' jarri dute. Ordutegia papera ipinita zuzendu badute, berdin egin dezakete euskara akatsagaz.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta
astekaria@anboto.org

Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta Anbotoren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Sei hankako mahaia



Mikel Basabe Aralar

Haize hegoa

Herri txikietan sarritan gertatzen da ezagunekin kalean tril egitea. Gehienetan, 'epa' eta 'bueno' esan, eta amaitu da elkarrizketa. Beste batzuetan, berriz, dela leku itxi batean elkartu garelako, dela ambulatorioan zain gagozelako, dela beste edozein arrazoiengatik, berbetan luzetxoago jarduten dogu, gogorik eta gairik egon ez arren.

Eguen goizean, atzo, autobusaren zain zegoen ezagun ez oso lagun bik bata bestea gazberba eginez gero, elkarrizketa hasiko eben, hainbaten eguraldiagaz. Hego haizea dabilela, epeldu egin dauela itzelean, berriro behotza ei dakarrela, negua zer luze egin den: "Ea noiz amaitzen den", pentsatuko eben lagunok.

Baleiteke, baina, autobus hori atzeratuta etortzea. Elkarrizketa gaz jarraitu egin behar, orduan. Zer gai aterako? Beharbada, asteburua: eguenean normala izaten da, baina, gainera, oraingoan barikua jai izanda. Urtetako asmorik ete zeukien, nonora joatekorik edo herrian geratu. "Geratu ala mogitu, ez dakit zer egin", esango eban batek. Zeuk ez badakizu, nori galdetuko deusagu, agoazilari?" besteak erantzun.

Gero beste gai bat atera behar, eta orduan Athleticen txanda izan leiteke. "Oraingoan bai, e? Aurten benetan ilusinoa eragiten dabilz" bata, eta besteak: "Bai, baina amaierara arte ezin jakin, ezta? Beste hainbestetan be, emoten eban aurten bai izango zela, eta azkenean ... ezer be ez".

Autobusak agertu barik jarraituz gero, orduan arazoak elkarrizketa berri jarraitzeko. Zaharrak barri direnean, gogorik emoten ez daulako berbetan alperrik jarduteko. Pena da, zaharrak berri izatea, zaharra hain denean zahar, eta barri onen hainbesteko premian gagozanean.

Pena da zaharrak berri izatea, zaharra hain zahar eta berri onen premia hainbestekoa denean



Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
 diruz lagundutakoa



anboto
 durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
 2010eko martxoaren 19a - 9. urtea - 366 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Gemma Aldalur.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana Domínguez, Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

BIZKAIKO BILDOTSA

ERRALDE
HILTEGIA

HARATEGIAK

ABADIÑO
Teo

BERMEO
Izarzugaza
Barturen
Emilio

BILBAO
Iñaki
Fco. Javier Atutxa

DIMA
Igor Zuazo

DURANGO
Rafael Agirre
Gallastegi
Pablo Areitio
Jose Luis Etxaniz
Olabe

ERANDIO
Luis Angel

GALDAKAO
Javier Sagasti

GERNIKA-LUMO
Iturbe Anaiak
Jesus Maria Martija

IGORRE
Rekalde

IURRETA
Alberdi prekozinatuak
Javi Cebada

MAÑARIA
Rafael Bizkarra

ONDARROA
Belaustegi anaiak

OTXANDIO
Angela Ruiz
de Samaniego

SANTURTZI
Barquin

JATETXEAK

AMOROTO (OLETA)
Ibaigane

BERRIZ
Pedro Juan
Ganeko Etxe
Toki Ona
Ereña


LA ARBOLEDA
Meaztegi Golf

MUXIKA
Astei

ZORNOTZA
Boroa
Juantxu



Askatasun etorbidea 48
48200 Durango
Tel.: +34 94 681 02 48
Fax: +34 94 621 77 66



AGENDA >

> ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Martxoaren 26an, 21:00etan EL MUNDO AL REVES

Bufoien istorioa da, narrazioa eta poesia testuekin egindakoa, eta kritika soziala egiten dute. "Duela hogeita hamar urte, gauza miragarrien herrialdea bisitatu ondoren, ispiluan sartu zen Alizia, alderantziz dagoen mundua deskubritzeko. Gaur egun berri sartuko balitz, ez luke ispilurik zeharkatu beharrik izango: nahikoa luke leihotik begiratzea.

ANTZERKIA

DURANGO

- » **"Oinez dabilen jende eskasa" (Karrika antzerki taldea).** Lan berriaren estreinaldia, martxoaren 20an, San Agustinen, 22:00etan.
- » **"Uharte ezezagunaren istorioa".** Markeliñek familia osoarentzat taularatu duen antzerki saioa. Martxoaren 21ean, San Agustinen, 18:00etan.
- » **"Aulki Hutsa",** antzerki saioa martxoaren 26an 22:00etan San Agustinen.

ELORRIO

- » **"Kri kra kro"** haurrentzako antzerkia. 3 eta 6 urte bitartekoentzat zein familia guztiarentzat. Martxoaren 21ean, Arriolan, 17:00etan.



ZORNOTZA

- » **"El Mundo al Reves. Una historia de bufones"** martxoaren 26an, 21:00etan, Zornotza Aretoan.

BESTEAK

DURANGO

- » **EHNE Bizkaia formakuntza eta elkartrakerako jardunaldia gazte baserritarrentzat eta baserriratu nahi duten gazteentzat,** martxoaren 24tik 27ra. Apuntatzeko azken

eguna: Martxoak 22an. Izen-emate orria www.baserribizia.info webgunean lortu daiteke. Edo bestela, telefono honetara deituz: 946232730 Unai (EHNE-Bizkaia)

» Orhipean parke tematikoa

Durango Landako Erakustazokan, martxoaren 20 eta 21ean.

Egitaraua: Martxoak 20

- » **10:30 Irekiera:** Artisautza eta elikagaigintza; Asturias, Galizia, Paisos Catalans, Nafarroa.

- » **11:00 Nazioartea:** Paisos Catalans-i buruzko dokumentala: 'Catalonia independence or autonomy?'

- » **11:00 Nazioartea:** Hitzaldia: Haifa-ko Lana Khaskiak eta Ramallah-ko Ahgsan Barghouthik Palestina izango dute hizpide.

- » **12:30 Ekitaldi nagusia:** Antzez-lana: 'Orhiko xoria, Orhin laket'.

- » **13:15 Kantujiran:** Bentzaharreko mutiko alaiak taldeak euskal kanta tradizionalak emango ditu.

- » **17:00 Literatura:** 'Eroriaren logika' Juan Ramon Madariagaren eskutik. Musika: Four friends.

- » **18:00 Kantujiran:** Bentzaharreko mutiko alaiak taldeak euskal kanta tradizionalak emango ditu.

- » **19:00 Euskal musika:** Aintzina taldeak 'Suitian' emanaldia eskainiko du.

- » **20:15 Kantujiran:** Bentzaharreko mutiko alaiak taldeak euskal kanta tradizionalak emango ditu.

- » **21:30 Zinema:** 'Itsasoaren alaba' filma eta Ipes-Gite berbaldia. **Martxoak 21**

- » **10:30 Irekiera:** Artisautza eta elikagaigintza; Asturias, Galizia, Paisos Catalans, Nafarroa.

- » **11:00 Gure Herria:** 'Iruña-Veleia erromatar hiria, egia ala gezurra?'. Hizlaria: J. Martin Elexpuru.

- » **12:30 Euskal musika:** Jean Bordaxarrek (Xiberoa) Piriniotako kanta tradizionalak eskainiko ditu.

- » **16:30 Antzerkia:** Kukubiltxo antzerki taldeak 'Kukubel 2.0' eskainiko du.

- » **19:00 Memoria historikoa:** '1512 Nafarroaren konkista' hitzaldia. Hizlaria: Angel Rekalde.

IURRETA

- » **Kimuak aisialdi elkartearen Aste Santurako eta udarako eskaintzan izena emateko epea hasita dago, Kultur Etxean eman behar da izena;** martxoaren 26a izango da azkeneko eguna. Aste Santuko tailerrak, LH 3. mailatik DBH 1. mailara arteko gazteentzat izango dira. 10 euro balio du matrikulak. Udalekuei dagokienez, finkoa eta ibiltaria antolatu dituzte. Uztailero lehenengo hamabostaldian, ibiltarian murgilduko dira DBH 3. mailatik 17 urtera arteko gazteak. Bigarrenean, finkoan, LH 5. mailatik DBH 2. mailarakoak batuko dira. 190 euro balio du; 170 etxe beretik bi joanez gero, edo familia ugariak izanez gero.

- » **Iurreta Txirrindulari Elkarteak ibilbideak antolatu ditu** martxoaren 19, 20 eta 21erako, 9:30ean lurretatik irtengo da, ibilbide luzeena barikuan (90km) eta laburrena domekan (82km).

DANTZA

ELORRIO

- » **"Papiro... flexia",** Break Dance, Hip Hop dantzak eta audiobisuala uztartzen duen ikuskizuna, martxoaren 23an, Arriolan, 11:00etan.



DEIAK

DURANGO

- » **Odola emoteko aukera,** eguenero, 16:30etik 21:00etara, Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emaile elkarteak deituta.

ERAKUSKETA

BERRIZ

- » **Ateak, leihoak eta aldabak, argazki erakusketa** Kultur Etxean, martxoaren 15etik 30era.



DURANGO

- » **"La Biblia: Historia de un pueblo que busca su libertad"** erakusketa Aste Santura arte egongo da ikusgai Uribarriko Andra Maria basilikan. Astelehenean larunbatera, goizez 09:30etik 13:00etara, arratsaldez, 17:00etatik 19:00etara. Domeketan goizez bakarrik.

ERMUA

- » **Margoa** erakusketa, martxoaren 16tik 29ra, Lobiano kultur gunean, Zelaieta Zentroan.

ZORNOTZA

- » **"Mal aire"** erakusketa hilaren 16tik apirilaren 6ra. Zelaieta Zentroan.

- » **Katsumi Komagata.** Martxoaren 30era arte, Liburutegian.

HITZALDIAK

IURRETA

- » Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, **"No te quedas callada II"** hitzaldia, martxoaren 25ean, 18:30ean.

IKASTAROK

BERRIZ

- » **Ikastaroak igerilekuan, Gimnasioa eta Cyclinga.** Izen emateko epea: martxoaren 2tik 22ra, Berrizburu kiroldegian, 10:00etatik 20:00etara. Zozketa eguna, martxoak 23an; emaitzak, martxoaren 24an.

DURANGO

- » **Zaindu programaren baitan,** Durango adinekoen udal egoitzan: **Alzheimer gaixotasuna eta beste dementsia batzuk,** mintegia martxoaren 24an. Ordu eta erdiko saioak dira. Ordua: 17:30-19:30.



- » **Patinaje ikastaroa,** zapatuetan. 6 eta 15 urte bitartekoentzat, 16:00etatik 17:30etara. Nagusientzat, 17:30etik 19:00etara, Kurutzia Ikastolan. (Informazio gehiago: 94 603 0031)

- » **Euskal dantzen ikastaroa.** Martitzenero, iluntzeko 19:30etik 21:00etara, Plateruena Kafe Antzokian, AIKO taldearen eskutik.



- » **Adinekoentzako denetario ikastaroak: Landare kontserba eta mermelada ikastaroa, adimen emozionala, etxeko kontabilitatea (Excel), argazki moldatzeko ikastaroa, landare osasungarriak eta elikadurari buruzko ikastaroa, barreterapia eta adinari buruzko ikastaroa.** Izen-emateak Durango adinekoen udal egoitzan.

- » **Tailerra: Eleberri Beltza.** Apirila bitartean izango dira eskolak. Hamabost egunean behingoa maiztasu-nagaz, Juana Lopez de Muniain-en eskutik. Izen emateko Liburutegira gerturatu.



MAÑARIA

- » **Jendearean nola hitz egin** ikasteko ikastaroa. Irakaslea: Manu Maraño Uriarte. Apirilaren 12, 19, 26 eta maiatzak 3 eta 10, arratsaldeko 5etatik aurrera. Izen emateko

martxoko agenda

Martxoak 20-21-27-28 • Iurretako Txirrindulari Elkarteak
10:00etan. Ibilbide ezberdinak. (75km)
28an, 11:00 Eskolarteko BTT-ko kriteriuma

Martxoak 23-26 • Herri Biblioteka
23an, Haurren irakurketa kluba. 17:00-17:45 (8-10 urte) / 18:00-18:45 (11-12 urte)
26an, Haurtoen irakurketa kluba. 17:30-18:30 (3-6 urte)
Helduentzako ipuin kontalaria. 20:00 "Pasiones irrefrenables"

Martxoak 25 • Emakumeen Nazioarteko Eguna
18:30ean Hitzaldia. "Empoderamiento de las mujeres a través del conocimiento de sus derechos: No te quedas callada II". Hizlaria: Isabel Abella

Martxoak 28 • Bidezabal Atletismo Taldea
10:00etan XXX. Iurretako Hiri Frogak

IURRETAKO UDALA

azken eguna martxoaren 30ean, asteartean, izango da.

IKUS-ENTZUN

DURANGO

» **'Ezazu film fest'**; film laburren lehiaketa, martxoaren 20an, Plateruenean, 18:00etan.



MAÑARIA

» **Umeentzako zinea**, martxoaren 21ean 17:00etan, Udaletxeko batzar aretoan.

IPUINAK

IURRETA

- » **Haurren irakurketa kluba**, martxoaren 23an Herri Liburutegian. 17:00-17:45 8-10 urte bitartekoentzat, 'Ilargia Ezpainen-tan'. 18:00-18:45 11-12 urte bitartekoentzat, 'Elurra ezin da erosi'.
- » **Haurtoen irakurketa kluba**, martxoaren 26an, 3-6 urte bitartekoentzat, 17:30etik 18:30era, Herri Liburutegian.
- » **Helduentzako ipuin kontalaria** Reyes Guijarro eta Marta Guijarroren eskutik, hilaren 26an 20:00etan, Liburutegian.



MUSIKA

BERRIZ

» **Berrizko musikariak**. Berrizko musika ikastegian ikasle izandako lau musikariak emanaldia eskainiko dute, martxoaren 26an, 22:00etan Kultur Etxean.

DURANGO

» **Musika melodikoa, gitarra, biola eta ahotsaz**, Judith, Yera eta Victor hirukotearen eskutik. Martxoaren 19an, 23:30ean, Café Misarben.



ERMUA

- » **Kontzertua Alboka musika eskolako ikasleen eskutik**, martxoaren 23 eta 24an, 19:30ean, Lobiano Kultur Gunean doan.
- » **Perkusio Kontzertua**, martxoaren 26an, 22:15ean, Lobiano Kultur Gunean.

ZALDIBAR

» **Txistulari Eguna**: txistulariek, albokariak eta dantzariak jardungo dute, martxoaren 19an, eguerdiko 12:45ean hasita, San Andres elizan.

ZINEKLUBA

DURANGO

» **'Up in the air'** martxoaren 25ean, 20:30ean, Zugazan.



ERMUA

» **'Vos que sos mi hermana'** martxoaren 25ean, Lobiano Kultur Gunean, 19:00etan eta 21:30ean.



ZORNOTZA

» **'Let's get lost'** martxoaren 23an, 20:00etan, Zornotza Aretoan.



Martxoaren 26an, 22:00etan

AULKI HUTSA

Lapurdiko Le Petit Théâtre de Pain, hainbat kultura eta hizkuntzako hamabi artistak osatutako taldeak 'Aulki hutsa' dakarkigu, Joseba Sarrionandiaren zenbait idatziren egokitzapenetik sortua, lehenengo Zilar Astearen egitarauaren baitan. Bertan, erbestetik itzuli ezin den gizon batek trago bat eskaintzen digu, gero beste bat bakardadea izutzeko asmotan... Musikari baten doinuak ditu lagun deserriratutako gizonak.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza
El libro de Eli (Digital)
 Zuzendaria: Albert Hughes y Allen Hughes.
 eguna 18: 20:30
 barikua 19: 19:30/22:30
 zapatua 20: 19:30/22:30
 domeka 21: 19:30/22:30
 astelehena 22: 19:00/22:00
 martitzena 23: 20:00



Umeendako zinema

Toy Story 2 3D

Zuzendaria: John Lasseter
 barikua 19: 17:00
 zapatua 20: 17:00
 domeka 21: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia
Un profeta
 Zuzendaria: Jacques Audiard
 barikua 19: 20:00
 zapatua 20: 22:30
 domeka 21: 20:00
 astelehena 22: 20:00



ZORNOTZA

Zornotza aretoa
La Cinta blanca
 Zuzendaria: Michael Haneke
 zapatua 20: 22:30
 domeka 21: 20:00
 astelehena 22: 20:00



Umeendako zinema

"Percy Jackson y el ladrón del rayo"

Zuz.: Chris Columbus
 domeka 21: 17:30

BOTIKAK

- Barikua, 19**
 09:00-09:00
 • SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
Zapatua, 20
 09:00-09:00
 • Unamunzaga (Murrueta Torre 2C - Durango)
 09:00-13:30 (*14:00)
 • Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
 • Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
 • Navarro/Sanroma/ Sagastizabal/ Campillo/ De Diego/Balenciaga
 • Irigoien* (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
 09:00-22:00
 • Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)
Domeka, 21
 09:00-09:00
 • Navarro (Artekale 6 - Durango)
Astelehena, 22
 09:00-09:00
 • Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
 09:00-22:00
 • Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
Martitzena, 23
 09:00-09:00
 • Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
Eguaztena, 24
 09:00-09:00
 • Campillo (Montebideo 24 - Durango)
Eguena, 25
 09:00-09:00
 • Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
 09:00-22:00
 Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak112	UDALAK	Txanporta KE94 620 36 47
DYA94 620 28 00	Abadiño94 621 55 30	Errota KE94 466 94 16
Gurutze Gorria94 681 09 49	Atxondo94 682 10 09	Gorabide94 681 24 35
Osakidetza94 600 72 00	Berriz94 682 45 84	Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Ertzaintza94 466 93 00	Durango94 603 00 00	Nekazal bulegoa94 681 15 20
Suhiltzaileak112	Elorrio94 658 27 12	Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
GARRAIOAK	Garai94 681 63 93	Butanoa (UME).....94 681 08 77
Euskotren902 54 32 10	Iurreta94 620 12 00	Araztegia94 620 28 00
Durango94 681 02 32	Izurtza94 681 35 48	Foru Ogasuna.....94 681 07 42
Bizkaibus94 448 40 80	Mallabia943 17 14 61	INEM Durango94 681 12 96
Pesa902 10 12 10	Mañaria94 681 89 98	Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Continental Auto945 286 466	Otxandio945 45 00 20	Epaitegiak.....94 603 00 51
TAXIAK	Zaldibar94 682 70 16	KIROLDEGIAK
Abadiño946 814 470	UDALTZAINGOAK	Igerilekua
Matienea606 459 988	Abadiño94 621 55 33	Astola94 620 29 29
Durango Geltokia.....946 811 001	Berriz94 682 40 36	Igerilekua
Goco Tour946 202 860	Durango94 603 00 10	Atxondo94 623 14 38
Tele Taxi944 102 121	Elorrio94 682 02 18	Berriz94 682 43 74
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026	Iurreta94 620 08 88	Durango
Elorrio Geltokia946 820 040	BESTELAKOAK	(Landako).....94 621 51 30
J.L. Uriarte670 402 002	Arriola94 658 31 92	Durango
I. Estebez670 678 273	San Agustin94 603 00 21	(Tabira)94 621 51 50
M Galeano.....946 582 854	Zornotza Aretoa94 630 01 68	Elorrio94 682 10 27
Iurreta946 201 565	Gaszte informazioa 94 603 00 30	Zaldibar94 682 73 74
Taxi auzunea688 618 690		

EGURALDIA


- 21° BARIKUA**
 Hegoaldeko haizearen menpe egongo gara. Hodeitza aldakorra izango da, erdi mailako hodeiak eta goi-hodeiak nagusi izango direlarik. Arratsaldean eta gauean euria egin dezake.
- 21° ZAPATUA**
 Hodeitza aldakorra izango dugu berriro. Euria egin dezake, baina lantzean behin izango da eta, egitekotan, urria izango da gainera. Hegoaldeko haizea bizi ibiliko da. Temperatura atsegina izango dugu.
- 13° DOMEKA**
- 22° ASTELEHENA**
- 19° MARTITZENA**

Izan zu zeu kazetari
eta argazkilari
Zure auzoko jaiak direla?
Ekimen bat prestatu duzuela?
Mendira joan eta paisaia zoragarriak
ikusituzula?

argazkiteka

berria

Bialdu zure argazkiak eta gure
WEBean izango dituzu ikusgai
Gura baduzu bialdu albistexoa
argazkiagaz batera



Bidali zure argazkiak: astekaria@anboto.org helbide elektronikora



anboto
komunikabideak

3



www.anboto.org

dimentsiotan

KIROLAK >



Merkataritza eta futbola uztartuz

Asteon +Dendak-ek, Durangoko Kulturalak eta Caja Rural de Navarrak lankidetzan jarduteko akordioa sinatu dute. Akordioak jasotzen duenez, +Dendak-en barruan dauden dendetan 'Durango txartela'-gaz erosiz gero, Kulturalak bi asterik behin Tabiran jokatzeko duen partidua ikusteko sarreraren zozketan sartuko da eroslea.

Santiago Reyes, +Dendak-eko gerentea, "oso pozik" agertu zen akordio horregaz. Aurkezpen prentsaurrekoan azaldu zuenez, "akordio honen bitartez, merkataritza, aisia eta kirola erlazionatu" gura dituzte. +Dendak-egaz erlazionatuta dauden 80 denda baino gehiagotan 'Durango txartela'-gaz erostean Kulturalaren partidua ikusteko sarrera bat lor dezakete erosle-

ek. Jakinarazi dutenez, 200 sarrera zotz egingo dituzte martxo eta maiatza bitartean.

Sarrera horiek tiket formatua izango dute, eta Caja Rural De Navarran jaso beharko dira. Ondoren, tiket horiek Tabirako futbol zelaiko leihatilan sarrera bategatik trukatu ahalko dira.

Lehenengo pausua

José Luis Espiaú Kulturalako presidentea adierazi zuenez, "akordioagaz merkataritza eta futbola elkartu" dituzte. Akordio hori herritarrentzat eta Kulturarentzat "ona" dela aipatu zuen, eta etorkizunean "beste akordio batzuk egiteko" bidea zabaltzen duela ere azpimarratu zuen José Luis Espiaúk.

Santiago Reyesek ere etorkizunean elkarrekin asmoak

aurrera ateratzen segitzeko asmoa erakutsi zuen: "Akordio hau pausu bat da, eta etorkizunean lankidetzan jarraitzeko asmoa daukagu".

Asmo horregaz, hurrengo pausua zehazten dabilta alde biak. Une honetan, merkatarien elkarte eta Durangoko futbol kluba aztertzen dabiltzana da Kulturaleko bazkideek +Dendak-en parte diren dendetan erosten duten bakoitzean baldintza bereziak edukitzea. ■ J.D.

Etorkizunean beste akordio batzuk adosteko asmoa erakutsi dute

24 Denboraldi txarra xakean

Ahazteko moduko klubaren arteko txapelketa izan dute gure xakelariak. Zaldi Baltza eta Larrasoloetako talde bik, esaterako, maila galdu egin dute aurten.

25 Itsaso Praderari elkarrizketa

Paleta Gomako Euskal Herriko Txapelketa irabazi du 23 urteko mallabitarrak. Gaztea izanagatik, Hegoamerikako eta AEBetako hainbat txapelketatan parte hartu du Itsaso Praderak.

Denboraldi eskasa izan da gure xake klubentzat

Zaldi Baltza eta Larrasoloeta mailaz behera jaitsi dira hiru mailatan



Abadiñok 3-1 irabazi zion asteburuan azkeneko sailkatuari, Matienako lokaletan. Ana Dominguez

Amaitu da klubaren arteko xake txapelketa, eta ospatzeko gutxi utzi digu aurtentzen. Elorrioko Zaldi Baltza —talde nagusia— goren mailatik lehenengo mailara jaitsi da; beste hainbeste gertatu zaio Durangoko Larrasoloetari, lehenengo eta bigarren mailan.

Abadiño xake taldeak eskual ligan beste urtebetean jokatzeke eskubidea lortu du, azkeneko jardunaldian 3-1 irabazita. Hala ere, Ibon Martin xakelariak dioenez, "geure borondatez goren mailara jaitea hausnartzen gabiltza". Partidu batzuk Gipuzkoan eta Nafarroan jokatu behar dira, eta "hainbeste urteren ondoren nekatuta" daude.

Aurtengo denboraldiko azkeneko jardunaldi bietan Alberto Cañon-ek lehen taldeagaz jokatu du: "Datorren urtean bigarren eta lehenengo taldeen arteko nahasketa egin eta bidaia eta ahaleginak banatzea

Abadiñok borondatez galdu dezake maila, joan-etorriekin nekatuta daudelako

Bigarren mailan igoeraren atarian geratu da Elorrioko Zaldi Baltza taldea

pentsatzen gabiltza", azaldu du Martinek.

Goren mailan, une honetan, Larrasoloeta bakarrik dago eskualdeari dagokionez; durangarrek mailari eutsi diote. Zaldi Baltzak lau urte gorenean eman

ondoren, maila galdu du. Datorren urtean mailaz igotzea izango dute helburu.

Lehenengo mailan Larrasoloeta Bk miraria behar zuen mailari eusteko, eta ez da halakorik gertatu. Haizetearen ondorioz atzeratutako partidua eta azkeneko jardunaldikoa jokatu ditu egun gutxiren buruan, baina lortu zitzakeen zortzi puntuetatik 1,5 bakarrik batu ditu.

Bigarren mailan Zaldi Baltza B igoeraren atarian geratu da. Nahiz eta Endrokeri 2,5-1,5 irabazi, puntu gehiago behar zituen mailaz igo ahal izateko. Larrasoloetak maila galdu du; puntuak behar zituen eta 4-0 galdu zuen. Gainera, Euskal ligatik Altzaga Leioa —Bizkaiko taldea— jaitsienez, promozioak behar zuela jaitsierako postu bihurtu da.

Hirugarren mailan, berriz, Zaldi Baltzak eta Larrasoloetak esperientzia batzea izan dute helburu bakar. ■ J.D.

Duatloian izena emateko epea, eguenera arte

Durangoko IV. Duatloia antolatu du martxoaren 27rako Mugarra Triatloi Taldeak

Duatloien euskal zirkuiturako puntuagarria den IV. Zarate eta Elexpe Duatloia antolatu du, martxoaren 27rako, Mugarra Triatloi Taldeak.

Duatloian parte hartu gura duenak datorren eguenera arte du izena emateko aukera. Federatuentzako 20 euro da, eta federatu bakoitzeko 30 euro. Izena Euskadiko Triatloi Federa-

zioko webgunean eman behar da: www.triatloi.org. Gehienez, 300 lagunek parte hartu dezakete. Kopuru horretara heltzean itxi egingo dute parte-hartzaileen zerrenda.

Gaztetxoei bideratutako duatloia 11:00etan hasiko dute; nagusienari, berriz, 16:00etan ekingo zaio. 19:30 inguruan egingo dute sari banaketa. ■ J.D.

Unai Zamalloa
•Saskibaloia entrenatzailea



Benetako orduaren atarian

Txapelketa ugariak bere momentu klabeetara iristen ari dira. Orain, udaberriaren atarian eta Aste Santuko oporren geldialdia bitarteko dela erabakitzen dira konpetizio gehienak. Bai hasierako helburuak lortzeko bai denboraldia salbatzeko ere. Aztertu ditzagun labur-labur eskualdeko talde nagusien azken txanpak.

Emakumeen lehenengo mailan, Tabirako neskek, Ardoi irabazita, ez daukate igoera faserako postuetara heltzeko posibilitaterik. Amaierarako zazpi partiduren faltan, sei partidutako diferentzia daukate bigarren postuan sailkatuta dagoenarekiko. Zaila benetan, baina denboraldia ondo bukatu beharra daukate, batez ere, hurrengo ongi prestatzeko.

Gizonezkoen lehenengo mailan, ordea, gure bi ordezkariak paper desberdinak dituzte. Tabirako, igoera fase honetako epaile nagusi bihurtu daiteke, zeren eta, fasean balantze txarrekin sartu arren, edozeini irabazteko gai den talde serioa eta langilea dugu. Beraz, beste talde guztiak oso adi egongo dira, bere emaitzen zain.

Laiene Zornotzak, igoera faseran balantze onagaz sartuta, urtea borobiltzeko aukera ezin hobea dauka igoera emango duten lehenengo bi postuetako bat lortzeko. Horretarako, bere jokoa erregular mantendu beharko du eta partiduz partidu aritu, finalak izango bailira jokatuz. Horrek eta talde lanak emango edo kenduko ditu aukerak.

Zorte on denoi!

Adituarentxokoa

San Prudentzio Pilota Txapelketa hasi dute

57 pilota eskoletako 82 bikote lehian dabilta kadete, gazte eta nagusi mailan

16. aldia beteko du aurtentzen San Prudentzio Pilota Txapelketak. Guztira, Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako, Nafarroako eta Errioxako 57 pilota eskolako 82 bikote dabilta parte hartzen. Tartean dira Abadiño, Berriz, Otxandio, Atxondo, Elorrio eta Mallabiko pilota eskolak.


Pilotariei dagokionez, gazte mailan ez dugu ordezkariarik, baina bai beste bietan. Kadeteetan Rico abadiñarrak Prieto mungiarraz osatuko du bikotea; Angiozar eta Bikuña berriz-

tarrek, Urrejola eta Ocerin otxandiarrek, Martinez eta Diez atxondarrek eta Berrojalbiz eta Uribelarrea iurretarrak ere bikotea osatuko dute. Nagusietan Azpuri elorriarra eta Aldape mallabitarra elkarrekin lehiatuko dira. Amaitzeko, Uriarte abadiñarrak Kantxo galdakoztarra izango du bizkarzain.

Finalak maiatzaren 1ean jokatuko dituzte, Matienako jaietan. Iaz Gallurraldek eta Jakak jantzi zuten txapela nagusien mailan. ■ J.D.

SAILKAPENAK >

Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak		Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / gizonak	Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / emakumeak
1- Amorebieta.....60	15- Santurtzi.....36	1- Cafés Aitona.....7 (+81)	1- Bera Bera22 (+358)
2- Real Sociedad B...57	16- Laudio.....35	2- Bidegintza.....7 (+57)	2- Gemika19 (+299)
3- Portugalete.....50	17- Aretxabaleta.....34	3- Ardoi.....7 (+15)	3- Ardoi18 (+377)
4- Elgoibar.....50	18- Eibar B.....32	4- Viajes Marfil.....6 (+45)	4- Cafés Aitona .16 (+129)
5- Beasain.....47	19- Retuerto.....24	5- Zornotza.....6 (+44)	5- Las Gaunas . .16 (+91)
6- Zamudio.....47	20- Salvatierra.....9	6- Padura.....6 (+32)	6- Tabirako13 (+151)
7- Gemika.....46		7- Obenasa13 (-64)	7- Obenasa13 (-64)
8- Amurrio.....45		8- Deusto-Loiola .11 (+31)	8- Deusto-Loiola .11 (+31)
9- Kulturala.....44		9- Elexalde10 (-61)	9- Elexalde10 (-61)
10- Basconia.....42		10- Abaroa10 (+49)	10- Abaroa10 (+49)
11- Arenas.....40		11- Krafft Atletico 9 (-42)	11- Krafft Atletico 9 (-42)
12- Lagun Onak.....39		12- Arabako EHU 9 (0)	12- Arabako EHU 9 (0)
13- Zalla.....39		13- Getxo8 (-164)	13- Getxo8 (-164)
14- Leioa.....38		14- Artieda3 (-248)	14- Artieda3 (-248)
		15- San Ignacio2 (-449)	15- San Ignacio2 (-449)
		16- Irlandesas2 (-429)	16- Irlandesas2 (-429)



Durangoko Kulturalak 41 gol sartu eta 35jaso ditu aurtengo denboraldian

“Frontoian bakarrik ibili naiz sarritan; orain 15 neskatoren entrenatzen ditut”



Orain GRAVN txapelketa jokatzen ari da Pradera. Kepa Aginako

Itsaso Praderak (Mallabia, 23 urte) Paleta Gomako Euskal Herriko Txapelketa irabazi du oraintsu, Laura Saezegaz bikotea osatuz. Labriten jantzi zuten txapela.

Txapela jantzeko ez dago toki zatarririk, baina Labritek prestigioa eta izena dauzka.

Sekula jokatu barik nengoen eta, egia esanda, ilusio handia egin zidan Labriten jokatzeak.

Contin eta Aristorena 30-28 menderatu zenituzten. Partidu lehiatua izan zen?

Finala oso gogorra izan zen. Hasieran gu aurretik joan ginen, eta gero eurak. 28na berdinduta ere egon ginen.

Zelakoak izan ziren azkeneko tanto biak?

Aurkariek arriskatu egin zuten azkeneko tanto bietan, eta txar-

Partidu orekatua izan zen; arriskatu egin zuten eta txarto irten zitzairen

Euskal Herri mailan irabazi duzun txapelketarik inportanteena da. Zure ibilbideko sasoirik onenean zaudela esan daiteke? Trinketean ez naiz lehenago adina ibiltzen, baina frontoi luzean aurreko urteetan baino maila hobean nabilela pentsatzen dut.

Trinketean edo frontoi luzean ibiltzen zara gusturen? Orain, frontoi luzean. Lana dela eta, ez daukat trinketera joateko denbora askorik. Baina trinketea ere gustatzen zait.

Bateko eta besteko entrenamenduetan alde handia dago? Trinketean badugu entrenatzailea, baina frontoian ez. Ahal dugunetan lau batzen gara entrenatzeko, eta ezin bada daudenekin entrenatu ohi dugu.

Nesken taldea sortu nuenean ez nuen itxaroten hain harrera ona izango zuenik

Pilotaren bidez herrialdeak eta jendea ezagutu ditut; pozik nago

Paletan jokatzeaz gainera, gazetxoak entrenatu ere egiten dituzu.

Ni sarritan bakarrik ibili izan naiz frontoian, ez nuelako norekin entrenatu. Proba moduan talde bat sortzea erabaki nuen, eta zortzi eta hamabi urte arteko 15 bat neska gazte apuntatu ziren. Finaletara heldu izan dira, eta jokatzen ondo pasatzen dute. Astearte eta ostiral arratsaldeetan entrenatzen dugu. Egia esanda, oso pozik nabil.



15 neskatoren entrenatzen ditu astean bi egunetan. Kepa Aginako

Itxaroten zenuen halako harrera? Ez. Infantil mailan esku pilotan neskatxo bat dabilela jakin nuen, eta berari laguntzeko zein nahi zuenari aukera zabaltzeko sortu nuen taldea, baina ez nuen halako harrerarik itxaroten.

2007an San Frantziskon izan zinen, Munduko Pilota Batzarrak antolatutako txapelketa batean, eta irabazi egin zenuen. Zelan gogoratzen duzu orduko esperientzia hura?

Lehenengoz antolatu zuten horrelako bidaia bat. Aurreselektzioa ez zen batere erraza izan, eta ez nintzela joango ere pentsatu nuen. Azkenean lortu nuen eta urduri egon nintzen, baina aldi berean oso pozik ere bai. Hasieran bikote bakarra zen joatekoa, eta azkenean bi joan ginen; gu bigarren bikotea ginen eta irabaztea lortu genuen. Hegoamerikako eta AEBetako pilotarien kontra jokatu genuen.

Gehiagotan ere ibili zara kanpoan. 2008an Txilen izan zinen, eta aurten Argentinan izan zara. Txilen ez genuen zorterik izan; multzorik gaitzenetakoa egokitu zitzaigun. Argentinan frontoiko eta trinketeko txapelketak jokatu nituen; trinketean azpitxapel-dun geratu ginen, eta frontoian, berriz, txapel-dun. Esperientzia politak izan dira.

Apurka-apurka turismo apur bat egiten ere bazabiltza.

Egia da, bai. Normalean ez dut bidaiatzeko denbora askorik izaten, eta horrelako txapelketak balagarriak dira mundua eta, batez ere, jendea ezagutzeko. Argentinan, esaterako, Australiako pilotariek parte hartu dute lehenengoz. Kultura ezberdinak ezagutzeko modua ere bada.

Zer txapelketatan parte hartuko duzu hurrengo?

Orain GRAVN txapelketan nabil. Joan zen astean jokatu genuen lehenengo partidua. Partidu orekatua izan zen, baina galdu egin genuen. Hala ere, pozik nago eman genuen mailagaz. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA
HIRUGARREN MAILA
Kulturala - Salvatierra
Zapatuan, 17:00etan,
Tabiran
LEHENENGO ERREGIONALA
(gizonak)
Iurretako - Umore Ona
Domekan, 17:00etan,
Larrakozelain
Zaldia - Urduliz
Zapatuan, 17:00etan,
Solobarrian
HIRUGARREN ERREGIONALA
Elorrio B - Lekeltio B
Barikuan, 18:00etan,
Eleizalden
LEHENENGO ERREGIONALA
(emakumeak)
Iurretako - La Merced
Zapatuan, 18:00etan,
Larrakozelain

ARETO FUTBOLA
OHOREZKO A MAILA
Sasikoa - Tecunil Bilbo
Domekan, 12:00etan,
Landako kiroldegian
EUSKAL LIGA
Kurutziaga Ikastola - Alegria
Domekan, 10:00etan,
Landako kiroldegian
GOREN MAILA
Mallabia Bastida - Soloarte B
Domekan, 17:30ean,
Zaldibarko kiroldegian
LEHENENGO ERREGIONALA
Abadiño Gaztetxe - Elorrioko B
Zapatuan, 15:10ean,
Elorrioko kiroldegian
Presion Break - Abadiño Lagun
Zapatuan, 17:00etan,
Berrizburun
EMAKUMEEN LIGA
Durango Kulturala - Artaromo
Martxoaren 26ra atzeratu dute; 19:45ean Landakon

ERRUGBIA
EUSKAL LIGA (emakumeak)
Durango-Arrasate - La Unica
Barikuan, 19:00etan,
Arripausuetan

PILOTA
BIHARKO IZARRAK
- Yoldi-Huntoria / Azpiri-Olaide
- Rico-Uriarte / Elezkano-Galarraga
Eguenean, 21:30ean,
Mallabiko pilotalekuan
SAN PRUDENTZIO
Kadeteak:
- Sarasti-Imaz / Arnaiz-Muniain
- Etxebar-Ziarrusta / Arrizabalaga-Freitas
Gazteak:
- Lendoiro-Ugalde / Artola-Zabala
- Varela-Iribarren / Etxaniz-Aizpuru
- Bilbao-Cilaurre / Gaztañaga-Labaka
Barikuan, 16:30ean,
Matienako pilotalekuan
Kadeteak:
- Jaurena-Cordon / Leonet-Murgiondo
Gazteak:
- Etxebarri-Mendiola-garai / Albizu-Arratibel
- Guaresti-Larunbe / Mugika-Arratibel
- Urretabizkaia-Bereziartua / Jaka-Karasatorre
Zapatuan, 17:00etan
Kadeteak:
- Albizu-Pujana / Agirresarobe-Erik
- Bernabe-Goñi / Maiza-Labaka
Kadeteak:
- Oronoz-Obregon / Murgiondo-Gabirondo
- Arrizabalaga-Mayans / Isasmendi-Etxamendi
Domekan, 16:30ean

EDERTASUN GIDA

Ileapaindegiak



NUKLEO
ileapaindegia

myspace.com/pelúkerianukleo
Nizeto Urkizu, 14 behea • Elorrio • Tel.: 94 658 29 96



- Ana Camarero
- Apaindegia dauka Durangon

Gorputzerako peeling-a

Negu luzearen ondoren, udaberriko prestatu behar da. Eguzkia hartzen hasi aurretik azala berri eta zaindu behar da, hildako zelulak kenduz.

Zergatik egin behar da peeling-a eguzkia hartu aurretik?

Beltzaran kolore politagoa lortzen delako; azal-kolore uniformeagoa eta denbora luzeagoan mantentzen da, gainera.

Zer onura dakarkio azalari?

Peeling-agaz azala oxigenatu egiten da, eta argitasun handiagoa lortzen da.

Zelan egiten duzue zuek gorputz-peeling-a?

Guk gorputz osorako tratamendua egiten dugu, gatzezko kristal mehez esfoliatzen dugu azala. Hori gorputzeko likidoak kanporatzeko onuragarria da. Esfoliatzeko emultsioa ere erabiltzen dugu, eragina areagotzen baitu. Tratamendua bukatzeko, azala hidratatzen dugu masaje baten laguntzaz.




ZUTOIA
ileapaindegia

- Tratamendu kapilara
- Estentsioak
- Unisex
- Solarium bertikala

ORDUTEGIAK: asteartea-barikua: 9:00-19:00 • zapatua 7:30-14:30
Ambrosio Meabe, 2 • Tel.: 94 621 82 18



iunik
ileapaindegia

astelehenerik
asteazkenea
10:00-21:00

osteguna
eta ostirala
09:00-22:00

larunbata
09:00-17:00

Antso estegiz, 1 • Durango • Tel.: 94 621 64 91

Estetika Zentroak



Parafarmazia *Amalia* Dietetika

- Drenatze linfatikoa
- Dieta pertsonalatuak
- Elikagai naturalak
- Dermokosmetika
- Haurrentzako elikagaiak

Antso Estegiz Zumardia • 1zk. behea • Durango • 94 681 81 96



Cristina Agirre
• apaindegia •

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- MANIKURA • PEDIKURA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango



Virginia Ansorena
• estetika •

- 38€-ko bonoa
- Aurpegi garbiketa
- Bekainen diseinua
- Manikura
- %40ko deskontua izerrondo eta besapetako fotodepilazioan

San Agustinalde, 1ªA-1ºC, 48200 Durango
Tel.: 94 620 29 78 Mbl.: 665 716 017



Ana Camarero
• apaindegia •

LASER
FOTODEPILAZIO
MEDIKU-ESTETIKOA

- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango



anboto.iragarki**laburrak**.com



etxea saldu edo alokatu nahi baduzu
ostalaritzan lan bila nabil
non aurkitu baina?

mendiak zurituta daude jada, erabiltzen
ez duzun materiala duzu etxean?

liburuak diskoen truke hartu nahi
dituen norbaiten bila nabil

sofa berri duzu eta zaharrarekin
ez dakizu zer egin?

haurra koskortu zaizu eta dagoeneko
kotxea ez duzu behar?

zergatik joan bakarrik lantokira
autoa konpartitu dezakezunean?



Interneten

iragarki guztiak **doan**
ezer esan ezean 3 hilabetez
egongo dira zuen iragarkiak

Paperean

iragarki guztiak **doan**
ezer esan ezean 6 astez
egongo dira zuen iragarkiak

Kategoria berriak
Sare sozialetara loturak
Abisuak posta elektronikoko eta SMS bidez
Bilatzaile garatuak

...



anboto.iragarkilaburrak.com

BILDUMAK
EROSI

Bertoko garagardoaren txapa. Bertoko garagardoaren txapa erosiko nuke. Kolekzioko Euskal Herriko txapen bilduma betetzeko dagoeneko desagertutako Bertoko garagardoaren txapak falta zaizkit. Telefonoa: 695 452 194

GAINERAKOAK
Garagardo txapen kolek-

zio osatzeko trakerako prest. Garagardo txapen kolekzioa osatzeko trakerako prest. Munduko edozein garagardoren txapak aldatzen dira. Tel.: 695 452 194

GAINERAKOAK
EMAN

Biodantza ikastaroa. Biodantza ikastaroa eskaintzen dut, barikuetan, Erorriko Lourdes ikastetxean. Telefonoa: 626-661292

Familia/etxea
ETXERAKO TRESNAK/ALTZARIAK
SALDU

Ohe artikulatua. Ohe artikulatua salgai, orain dela hiru hilabete erositakoa. Egoera onean. Mugikorra: 639957569

HAURREN TXOKOA, OSAGARRIAK
SALDU

Bikientzako aulkia. Bikientzako McLaren markako aulkia. 2007an erositakoa. Telefonoa: 655742241

Haurrak eramateko kanguroa. Bular aldean haurrak eramateko kanguroa. 18 euro. Tel.: 655742241

Haurrentzako eskailertarako segurtasun barra. Hainbat luzeratarakoa. 40 euro. Telefonoa: 655 742 241

Haurrentzako moises antzeko sehaska. Leander markakoa, hiru hankakoa. 2007an erositakoa eta 9 hilabete bakarrik erabilia, egoera ezin hobean. Koltxoia, hiru hankakoa eta beloa barne, izararik ez. 190 eurotan. Telefonoa: 655 742 241

Haurrentzako ohea eta sehaska. Ikea-ko Diktad haurrentzako sehaska-ohea. 70x140 zm.

Koltxoia bi alteratan ipintzeko aukera du.

Latex-eko Ikea-koa ez den koltxoia barne. 95 euro. Telefonoa: 655 742 241

Kotxerako 9-18kg bitarteko aulkia. Kotxerako aulkia 9-18kg bitarteko aulkia. 40 euro. Lourdes Isasi Salterain. Telefonoa: 699 45 43 69

Paseatzeko aulkia. Pasea-

tzeko aulkia. Ez dago asko erabilia. 50 euro. Lourdes Isasi. Telefonoa: 699 45 43 69

MODA/ OSAGARRIAK
GALDU

Jertse marroia galdurangon. Otsailaren 27an laukidun jertse marroia galdurangon Uda Berri edo Gure Kabiya taibernetan.

Leku hau zure iragarkiaren zain dago

INMOBILIARIAK

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo • Telf. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Zaldibar: Eraikitzen dauden etxebizitzak salgai.
- Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin salgai.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin salgai.
- Errentxu: Salgai. Adosatua eraikitzen.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Alluitz: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Ganbara.
- Ambrosio Meabe: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Ganbara.
- Andra Mari: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 4 logela, 2 komun, egongelatxo. (135 m2).
- Antso Eztegi: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela, komuna, bainugela, balkoia eta ganbara.
- Aramotz: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela, komuna eta balkoia.
- Artzetagan: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Askatasun Etorbidea: Halla, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.
- Askatasun Etorbidea: Halla, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Garajea, trasteleku eta ganbara.
- Astola bidea: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia.
- Astarloa: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Barrenkale: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Ermodo: Halla, sukalde-jangela, egongela, 4 logela eta 2 komun. 2 terraza (bat oso handia).
- Ezkurdi: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 / 4 logela eta 2 komun.
- Gasteiz bidean: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
- Goienkalen: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna eta ganbara.
- Intxaurrondo: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna. Trasteleku.
- Iparragirre: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 3 logela eta komuna. 2 balkoi.
- Iparragirre: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kotxerentzako garajea eta trasteleku.
- Juan Antonio Abasolo: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Juan de Itziar: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
- Kalebarria: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Kalebarria: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. (Guztiz barriztuta).
- Kirikiño: Halla, 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
- Komentu kalean: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz barriztuta eta erdi jantzia).

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 681 66 66 inmoduranguesado@gmail.com
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakar garajea eta ganbarekin 200.000€+ BEZ
- 2 logela garajea eta ganbarekin 233.000€+ BEZ
- 3 logela garajea eta ganbarekin 350.000€+ BEZ
- Tabira: Logela bakar apartamentuak. Ganbarekin.
- Pagasarri kalea: Azkeneko etxebizitzak salgai. Eraiki berriak. 2 eta 3 logela. Garaje itxia.
- Abadiño: 2 logela. Garajea, trasteleku eta ganbara.
- Zaldibar: Aukera. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berogailua. Balkoia. Garajea.
- Zaldibar: Lursaila salgai eraikitzeko aukerarekin.
- Durangaldea: Txaletak hainbat herritan.
- Durangaldea: Baserriak, pabilioiak eta garajeak hainbat zonaldeetan, salgai edo alokairuan.
- Andra Mari: 30 m2-ko terraza. 2 logela. Berriztatua.
- Mendizabal: 63 m2. 2 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara.
- Fray Juan de Zumarraga: 75 m2. Duplexa. 2 logela. Garajea eta trasteleku.
- Askatasun - Oniturri (Ezkurdi): Erdi berria. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Ganbara.
- Fray Juan de Zumarraga: 57 m2. Erdi berria. Logela bakarra.
- Alluitz - Fray Juan de Zumarraga: 50 m2. Erdi berria. Logela bakarra.
- Ezkurdi: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- Askatasun Etorbidea: 123 m2. 4 logela. Garajea, trasteleku eta ganbara. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Fray Juan de Zumarraga: 108 m2. 4 logela. Altuera ona. Garajea.
- Murueta Torre: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trasteleku. Balkoia.
- Juan de Itziar: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzaren sartzeko moduan.
- Askatasun Etorbidea: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
- Herriko Gudarien kalea: 105 m2. 3 logela. Garaje itxia. Balkoi handia.
- Monago Torre: 130 m2. 3 logela. Garajea, trasteleku eta ganbara.
- Ermodo: Erdi berria. 90 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Balkoia.
- Murueta Torre: 90 m2. 3 logela. Garajea eta trasteleku.
- San Ignazio: 104 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Pagasarri kalea: 94 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Antso Eztegi: 97 m2. 3 logela. Ganbara. Berriztatua.
- San Franzisko: 75 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 2 balkoi.

ETXETXO G. INMOBILIARIA
Saibigain, 1 (sarrera F. J. de Zumarraga kalotik)
Tel.: 94 681 40 49 • DURANGO • ietxetxo@hotmail.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Durango: 90 m2. 2 logela eta 3 komun. Trasteleku. Garaje itxia. Terraza handia.
- Antso Eztegi: 2 logela eta komuna. Berriztatua. 198.000€.
- Franzisko Ibarra: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 318.600€.
- Durango: 120 m2. 4 logela eta 2 komun. Egoera onean.
- Alluitz: 150 m2. 4 logela eta 2 komun. 2 terraza. Ganbara.
- J. Olazaran: Erdi berria. 95 m2. 3 logela eta 2 komun. 2 Terraza. Ganbara. Garaje itxia.
- Tabira: 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Garaje itxia.
- Durango: 2 logela. 156.300€.
- Plateruen Plaza: Atikoa. Estreinatzeko. 2 logela. Terraza handia. Garajea.
- Ermodo: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi berria. Bizitzaren sartzeko moduan.
- Montevideo: (Jesuitas). Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- Mendizabal: 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.
- San Ignazio: 3 logela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Terraza. Garajea aukeran.
- Ezkurdi: 70 m2. 1. go solairua.
- Tabira: 80 m2. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Guztiz jantzia. Garajea aukeran. 216.400€.
- Sasikoa: 2 logela. Erdi berria. Ganbara. Garaje itxia.
- San Ignazio: 80 m2. 3 logela. Sukalde handia. Trasteleku. Garajea.

IURRETA

- Askondo: Pisu altua. 3 logela. Terraza. Garajea aukeran. 192.400€.
- Bidebarrietan: 3 logela. Igogailua. Terraza handia.
- Zubiaurre: 3 logela. Guztiz jantzia. 210.000€.

ABADIÑO

- A. Baesclin: 3 logela. Ikuspegi politik.
- San Trokaz: Logela bakarra. Erdi berria.
- Iturritxu: Berria. 2 logela eta 2 komun. 2 Terraza. Ganbara eta trasteleku. Garajea.
- Muntzaratz: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garajea. 275.000€.

ZALDIBAR / BERRIZ

- Zaldibar: Berriztatua. Eguzkitsua. 3 logela, egongela eta sukaldea.

BISITATU GAITZAZU BULEGO BERRIAN, SAIBIGAIN 1, (Fray Juan de Zumarraga kaletik sarrera).

Amboto
San Agustinalde, 4 - 1 Ezk. DURANGO
TF: 94 681 35 62 email: iamboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

BERRIZ


- Logela, sukalde "amerikarra", egongela eta komuna. Berria estreinatzeko. 96.000 €.

DURANGO

- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak, sukalde jantzia eta horma-armairuekin. 150.000€-tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
- Apartamentu berriak eraikitzen. 700€ hilero.
- Jose Maria Iparragirre: 3 logela, sukaldea despentsarekin, egongela eta 2 komun. Gas naturaleko berogailua eta igogailua. Aukera paregabea.
- Askatasun Etorbidea: Eraiki berriak. 2, 3, 4 eta logela bakarrekoak.
- Zeharkale: Atikoa. Guztiz berriztatua. 2 logela, sukaldea, egongela-jantokia eta komuna.
- Alluitz: 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin, egongela eta terraza. Garaje itxia. Estreinatzeko. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Tabira: 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea.
- Fray Juan de Zumarraga: 125 m2. 4 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bulegoa.
- San Ignazio: 3 logela, sukaldea, jangela, despentsa, egongela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea.
- Durango: 3 logela, sukaldea, egongela, jangela eta 2 komun. Garajea aukeran.
- Fray Juan de Zumarraga: 4 logela, egongela balkoiarekin, sukalde terrazarekin eta 2 komun. Orientazio ona.
- Murueta Torre: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara, trasteleku eta garajea. Prezio interesgarria.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Durango: Eraiki berria. 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta garaje itxia. Lehen mailako materialak.
- Tabira: Eraikuntza berria. Logela bakarreko apartamentua. Sukalde jantokia, komuna eta eskegitokia.
- San Inazio Auzunea: Berriztatua. 3 logela, (logela printzipala komuna eta jantziagelarekin), 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Pedro Pablo Astarloa: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea.
- San Fausto: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Prezio interesgarria.
- Intxaurrondo: Apartamentua. Logela, komuna, sukalde-egongela jantokia, eskegitokia eta trasteleku.
- Barrenkale: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak.
- Herriko Gudarien kalea: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza eta garaje itxia.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.

DENPORAPASAK >

HITZ GEZIDUNAK >

	Frantziako ibaia	▼	Presaka da-biltzanak	▼	Egungo bizimoduak ergiten du
	Zintzarri handi	▶	Indarrik gabea	▼	
	Ospa	▶			
Gogorarazi	▼	Finantza elkarte	▶		
* Irudiko basamortu		Albisteak			
			Sobera	▶	
			Kanpai-hotsak		
Mendi arteko igarobide	▶				
Kolore argia			Ingelesez, da	▶	
			Piztia		
Segada, lakioa	▶				Pl., ale-landareak
... gabe, atertu gabe					
			Giltza	▶	
			Egon dadila		
Marokoko hiriburua	▶				50
Nafarroako herrixka					Joaki naiz
Kontso-antea	▶	Iratzea	▶		
Pl., oiloaren haragia		Kontso-antea			

SUDOKU >

1

1	2	8			6	9	3
		4	5		3		
6	5	9				2	7
		6	2				1 8
			3	4	7		2
3	2					7	
			6	3		8	9
4				8		6	
6		1	7				5 3

2

			5	1		4	
	7						1 3
1			8				6 7
9				6	3		
6				3			
	1			4		8	
		7	6		5		3
		1					7
5	2						

HOROSKOPOA >

Aries


 marxoak 21 - apirilak 20
 Bidaiaren bat egiteko momentu egokia duzu, eta eskaintza interes-garriren bat jaso dezakezu. Badaezpada, prestatu egizu maleta!


Taurus

 apirilak 21 - maiatzak 20
 Aste honetan laneko errutinak pisu handiagoa dauka zugan, baina ez da aldaketetarako momentu onena.

Gemini

 maiatzak 21 - ekainak 20
 Urrun dauden familia edo lagunak bisitatzeko momentu egokia da; eskertuko dizute, eta zuri ere on egingo dizu.

Cancer

 ekainak 21 - uztailak 20
 Aste honetan gustuko duzun zerbaitegiteko denbora hartu. On egingo dizu buruko nahasmena konpontzeko eta gauzak argiago ikusteko.


Leo

 uztailak 21 - abuztuak 23
 Indartsu zabilta, beraz, atzeratuta zeneukan lan guztia aurreratzeko momentua da. "Biharko utzi baino, hobe gaur egin" da zure lema.


Virgo


 abuztuak 24 - irailak 23
 Sormen handiko astea izango da. Proiektu gaitzak aurrera eramateko sasoi egokia; eta ingurukoei sorpresatxo bat ematekoa ere bai.


Libra


 irailak 24 - urriak 23
 Ez da zure asterik onena, beraz, ez zaude oso baikor. Hobe duzu erabakiak geroago hartzen badituzu.

Scorpius

 urriak 24 - azaroak 23
 Bikoteak asko lagundu zaitu aspaldian, eta zu orain konturatzen zara horretaz. Berandu baino lehenago, eskertu egiozu zelanbait.

Sagittarius

 azaroak 24 - abenduak 23
 Azken aspaldian nahiko bakarrik zabilta. Hausnartzeko momentu egokia izan daiteke. Asmatuko duzu zer egin egoera aldatzeko.

Capricornus

 abenduak 24 - urtarrilak 20
 Ez utzi lanak geroko; azkenean dena pilotatuko zaizu eta estutuko zara, bestela. Lanak orain eginda, uda osoa zuretzat izango duzu.

Aquarius

 urtarrilak 21 - otsailak 18
 Amets egitea gustuko duzu, baina errealitatea ahaztu barik beti. Aste honetan, beharbada, zure ametsen bat egia bihurtuko da.


Piscis

 otsailak 19 - martxoak 20
 Erabakiak hartzeko garaia da, aldaketak egiteko momentu aproposa da hau zuretzat.

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra
 Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Martxoaren 13an **Jon Arginzoniz**ek 6 urte bete zituen. Zorionak, familia guztiaren partez. Zure irribarre polita erakusten jarraitu!



Argazkiko ume polit honek bere lehenengo urtetxoa bete zuen atzo. Zorionak aitita, amama, izeko Esti eta Enekon partez. Muxu pila!



Aritz Zalvidegoitiak 8 urte bete ditu hilaren 17an. Hamarrera bidean, e? Zorionak eta muxu handi bat, etxekoan partez!



Martxoaren 20an 9 urte egingo dituen **Unai Martinez Ardanazari** zorionak eta muxu handi bat, Gosentzia-koguztion partetik!



Amaia Elizaran, neska koxkor honek, astelehenean 10 urte egingo ditu. Muxuak lurretako familiaren partez. Opari asko jaso ditzazula!



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dogu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia emotea.

SOLUZIOAK

K	V	I	K	O	L	I	O
V	O	V	G	•	Z	•	
O	N	D	E	K	V	B	
L	•	T	B	A	V	•	
O	K	G	•	I	V	I	
•	V	P	N	V	R	T	•
S	I	•	V	I	R	U	Z
E	L	V	D	N	E	M	•
R	L	V	•	I	B	O	B
T	S	U	T	R	•	G	•
S	E	H	I	•			
E	•	O	A	R	E		
•	•	L	•				

1

6	8	1	7	9	2	4	5	3
4	6	3	1	8	5	9	2	7
2	5	7	4	8	3	6	9	1
3	2	8	6	1	7	4	9	5
8	1	9	5	6	3	2	7	4
7	4	9	6	5	2	3	1	8
3	9	6	1	8	2	7	4	5
9	7	4	5	2	3	1	8	6
1	2	8	4	7	9	6	3	5

2

3	5	2	1	4	7	6	8	9
8	1	9	8	6	3	5	2	7
4	7	6	8	5	1	3	2	9
7	1	3	4	9	6	8	5	2
6	2	5	1	3	8	7	9	4
8	4	7	5	6	3	2	1	9
1	4	6	8	2	5	3	7	9
5	7	8	9	6	4	2	1	3
2	3	6	7	1	9	4	8	5



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak. Eguneko menua.
Menu bereziak. Kartan, aukerako
okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Aste bitartean
menu berezia 16 euro, 18e/ardoa,
20e/kriantza. Afariak egunero
astelehen eta igandeak ezik.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta
martitzen gauetan itxita.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe gida



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Kanpazar Erretegia

Kanpazar gaina, Elorrio
Tel.: 94 658 29 12

08:00etatik 23:00etara zabalik.
Astelehen eta astearte gauetz itxita.
Astelehenetik ostiralera eguneko
menua 11€



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik
ostiralera. Asteburuetan bazkariak
eta afariak enkarguz.
Especialitatea: Txuleta errea.

Hemen agertu
gura
badozu,

DEITU

94 621 79 02

"Etorkinek etxean ama-hizkuntza erabiltzea oso garrantzitsua da"

Caritasen programa baten barruan, etorkinei erdara klaseak ematen dabil Mari Tere Urrutxi elorriarra

Irakasle lanetik jubilatutako arren, liburu artean eta arbel ondoan pasatzen ditu orduak Mari Tere Urrutxik. Caritasen egitasmo baten barruan, Elorriara heltzen diren etorkinei erdara eskolak ematen dabil. Irakatsi baino gehiago, ikasi egiten duela esan genezake.

Zure adineko emakume gutxi izango ditu gurean unibertsitateko ikasketak

Nik ere ez nituen ikasketa horiek gazterik egin. Nire sasoiaren emakumeak "etxeokandrea perfektuak" izan behar ginen, eta ez ginen unibertsitatean joaten. Kolegioan musika ikasketak egin nituen, baina alargundu nintzen nire bizimodua aurrera ateratzeko irakasle-ikasketak egitea erabaki nuen. Eta horixe egin nuen Eskoriatzan.

Gero, hainbat urtetan egon zinen irakasle Lourdesko Ama ikastetxean. Urte horietan aldaketa asko nabarituko zenituen.

Ni hasi nintzenean andereñoek esandakoa ezin zen eztabaidatu: errespetu handia ziguten umeek eta gurasoek. Baina ni jubilatutako nintzenerako irakasleak esaten zuena kuestionatu egiten zuten bai umeek bai gurasoek, eta orain ere horrela dela uste dut.

Musika eskolak ere eman dituzu.

Bai, sasoi batean etxean ematen nituen, eta gero, gaur egun Musika Eskola dena sortu genuen beste irakasle batzuekin eta udaletxearen laguntzagaz. Orduan nahiko mentalitate desberdina zegoen musika ikasketen inguruan. Titulua ateratzeari ematen zioten garrantzia gurasoek. Umeentzat hori oso txarra zen. Eurek musikagaz gozatzea gura zuten, eta ni ahalegintzen nintzen horretan. Pozik ibiltzen nintzen. Eskolatik irten eta musika eskolara joaten nintzen.

Duela zazpi urte jubilatutako zinen, baina jarraitzen duzu klaseak ematen.

Eta hartzen! Ikastaroetara joatea asko gustatzen zait. Jubilatutako nintzenean, neukan denbora guztiaz zer egin pentsatzen jarri nintzen. Pentsatu nuen ez nuela esku biderik denbora hori guztia neuretzat hartzeko. Besteen alde zeozer egitea gura nuen. Garai hartan Elorriara etorkinak etortzen hasi ziren, eta hasieran oztopo handienetako bat hizkuntza zen. Caritasen, orduan, erdara klaseak emateko egitasmoagaz hasi zen, eta animatu egin nintzen.

Leku guztietatik etorritako ikasleak dauzkazu.

Bai. Momentu honetan Arjelia, Maroko, Senegal, Mali, Mauritania eta Indiatik etorritako ikasleak daukat.

Gehienak emakumeak dira.

Zelako ikasleak dira?

Batzuk ez daude alfabetuta, emakumeak batez ere, eta apurka-apurka ikasten gabilta. Eskolan zer edo zer ikasi dutenekin frantsesez moldatzen naiz. Esan beharra dago emakume batzuek ez dutela ikasteko beharrik sentitzen. Normalean gizonak direnez erosketak egiten, udal txera joaten... ibiltzen direnak, askok ez dute sentitzen premia.

Mari Tere Urrutxi

Elorriarra

67 urte ditu

rik. Beste batzuek bai, eta, gainera, polito ikasi eta gero batzuk beharra ere topatu dute. Klaseetan berba asko egiten dugu, eta integratzeko era bat ere izaten da. Euren eta gure ohiturak guztiz desberdinak dira, eta hemengo ohiturak azaltzen ahalegintzen naiz.

Zuk ere asko ikasiko duzu.

Oso lan aberasgarria da. Euren ohiturangatik galdetzen diet, eta gaur, adibidez, euren herriko plater baten errezeta idatzi behar izan dute ariketa baten. Askosi dut, euren apaltasunaz batez ere. Emakumeen kasuan, nora datozen eta nogaz elkartuko diren jakin barik etortzen dira. Euren gizonak etorri dira lehenago lan egitera, eta ez dakite zer aurkituko duten. Arrazistak ere bagara, gainera, eta emaku-

me izatera, gaitzagoa da eurentzat hona etortzea.

Euskara ere irakasten diezu?

Batzuk eskatzen didate, eta nik ezetz esaten diet, AEK dagoela horretarako, eta ez naizela hasiko nire kontura AEK-k egiten duen lana egiten. Hemen hasi nintzen, Elorriara erdara ikasteko aukerarik ez zegoelako. Batzuek umeek euskara ikasten dutela eta eurek ere ikasi gura dutela diote, eta oso ondo. Baina esaten diet etxean euren hizkuntzan berba egiteko.

Umeek euskara eta erdara ikasiko dituzte. Jatorrizko hizkuntza eta ohiturak maitatzen etxean ikasi behar dute, eta hori garrantzitsua da. Gure kultura ere horregatik, transmititu delako, dago bizi-rik!



Jasone Agirre
Kazetaria

Izarrak

Gazte bat hil zen mendian lehengoan, Arrasaten. Haren lagunek hurrengo eguna Gaztetxearen inguruan egin ez zuten, denak batuta, barruko minari lekua egin ezinik. Dolua zelan erakutsi, zelan bideratu... graffiti bat egin zuten horman. Zorionekoak eurak, dolua azalertzeko bidea aurkitzen jakin zutelako.

Orain arte erlijioak, eliza katolikoak gurean, erakusten izan du bide hori. Heriotzaren osteko protokoloa argi zehaztuta eduki izan du. Bidea eginda zegoen; jarraitu beharra baino ez. Baina, gaur egun, askorentzat, horrek dagoeneko ez du balio.

Gogoan dut gazte baten hiletaren ostean, elizkizuna amaitu eta zati luze batera, gazterik han jarraitzen zuela elizpean, geldirik, zer egin, euren dolua eta samina zelan erakutsi jakingo ez balute bezala.

Arte galeria bateko zuzendariak lehengoan esan zidan, krisia krisi, oraingoa ez dela garai txarra artearentzat, nahiko ona baino. Azaldu zidan pertsonon alde mistikoa lehen erlijioaren bitartez asetzen zela, eta gaur egun, oster, erlijioa funtzio hori galduz doan neurrian, arteak hartu omen duela horren lekua askorentzat.

Nik neuk, oster, etxeok leihotik, gauzez, zerura begira egotea dut mistizismorik eskuragarriena. Baina hipermerkatuko argiek ez didate izarrak ikusten uzten.

Erljioa funtzio hori galtzen doan heinean, arteak hartu omen du pertsonon alde mistikoa asetzeko zeregina

urutiaga
gremioen koordinazioa

Solaguren kalea 3
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
E-mail: urtiaga.sl@terra.es
MATIENA
ABADIÑO

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AXULEIU, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA, HORMIGOI,
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

